

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



Goienka

EGUBAKOITZA • 2002ko ekainaren 21a • III. urtea • 70. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**ZER IRITZI DAUKAZU UMEEI EMATEN
ZAIZKIEN TXERTOEN GAINEAN /7**



Goienka2a

Musika eta antzerkia,
Elorrioko Udako
Jaialdiko eskaintza

KIROLA

Markel Irizar txirrindulari
oñatiarra, Euskadiko
txapeldun /10

PATXI ZABALETA

*“Ezker Abertzalearen
erakunde bakarra izan
nahi du Aralarrek” /9*

HUELGA: IA ERABATEKO ERANTZUNA IZAN ZUEN GUREAN 19KO DEIALDIAK /4



GOIENKARIA

San Juan jaiak gertu

Mondragoeko jaiak domekan hasiko dira, baina astebururako ere iragarri dituzte hainbat ekitaldi. Osterantzean, domekan, San Juan bezperan, hasi eta eguaztenera arte luzatuko da jai egitaraua. Denetik eta onetik, eta denondako, egongo da, ohikoa den moduan: estilo askotako musika, pilota partiduak, entzierroak, antzerkia... Arrasate jaien hiriburu izango da Debagoienean.

ASTEKO GAIA: UDABERRI FRESKOARI AGUR /2-3

Uztail nahasia eta abuztu sosegatua iragarri dute aurten

ARRASATE

**Herriko 44 taldek,
ilegalizazioari ezetz**

Batasuna legez kanpo utzita “urte askoko lanari esker lortutako askatasunean eta eskubideetan atzerapausoa emango dela” adierazi dute herriko 44 taldek. /5

ARETXABALETA

**Cyber-industrialdea
aurkeztu dute**

SPRI erakundeak enpresa digitala edo Cyber-industrialdea proiektua aurkeztu zuen martitzen goizean Aretxabaleako udaletxean. /5

BERGARA

**Udalak txakurren
jabeendako kanpaina
abiatuko du**

Txakur-heziketa kanpaina abiatuko du Udalak garbitasuna eta segurtasuna bultzatzeko. Txakurren jabeen zuzenduta dago. /5

**Iazkoa urte gaitza izan
arren, aurten %5 gehiago
irabaziko du MCCk**

Iazkoa urte gaitza izan zen MCCrendako, nazioarteko ekonomiarendako izan zen bezala, eta 2000rekin alderatuta, %8,7 jaitsi ziren taldearen irabaziak. Hala eta guztiz ere, aurtengo bigarren seihilabetekoan ekonomiak gora egingo duela aurreikusita,

■ *Lehen aldiz, MCCren salmentaren erdia atzerrian egin zen iaz*

joan den urtean baino %5 gehiago irabaztea espero du MCC taldeak. /4

Erdiko kale 32
ARRASATE
943 79 16 12

**GIZONAK
EMAKUMEAK**

UKO
JANTZIAK

Ibai-arteren
bazkide



ENEKO AZKARATE

Hemendik aurrera, gero eta debagoiendar gehiago hurbilduko dira Garaioko hondartzara edo inguruko beste bainulekuetara.

Iritsi da uda

Urtaro honetan aisialdiaz gozatzeko bestelako moduak daude

LEIRE KORTABARRIA

Egutegiak ekainaren 21a markatzen du udaren sarrera ate bezala, baina meteorologian eta astronomian adituen ustez, uda aspaldi iritsi da gurera: “Uda astro-

nomikoari dagoeneko hiru aste hartu dizkiogu”, dio Pello Zabala meteorologoak.

UDA, URA, KULTURA

Urtaro berriarekin batera, gure ohiturak ere ondo asko aldatzen dira. Gehienok oporrak hartzen

dituzte udan, eta ibarreko igerilekuetan edo urtegietan edo inguruetako hondartzetan bainatu eta eguzkia hartzeko aprobetxatzen dute. Uda eta bainua, askorendako, elkarrekin datoz.

Baina azkenaldian, batez ere, uda-kultura binomioa sendotzen

ari da, baita geurean ere. Jaiak —San Juan jaiak urtaroaren inaugurazio jolasti moduan— kultura herrikoia baldin badira, beste era bateko ekitaldiak, askoz lasaiagoak, ere prestatzen dituzte udalek eta kultura eragileek: aire zabaleko zinema, antzerki eta

musika emanaldiak —Arrasaten, Oñatin eta Bergaran, batik bat— izaten dira nagusi. Hor daude, esate baterako, Bergarako jazz kontzertu sorta, uztailean, eta abuztuko aire zabaleko zinema; edo Oñatiko Kalean kontzertu eta antzerki zikloa.

FAGOR



Etxetresna Elektrikoak jai zoriontsuak opa dizkizue

PELLO ZABALA / METEOROLOGOA

“Uztail koskatsua eta abuztu sosegatua izango ditugu aurten”

Euskadiko Meteorologia Elkartearen presidentea eta Arantzazuko meteorologia behatoki arduraduna dugu Pello Zabala. Harengana jo dugu izan dugun eta datorkigun eguraldiaren gaineko argibide bila.

Udaberri normala izan dugula esango zenuke?

Bai, bai. Gure udaberri eta neguak hotzak eta bustiak izan behar direla pentsatzen dugu, eta horrela ez baldin bada, harritu egiten gara; baina bai, aurtengo udaberri normala izan da.

Ekainean, denetarik izan dugu...

Ekainaren hamar egun trumoi eta hotz artean igaro genituen, baina gero, ilargi berriarekin, aldaketa etorri zen. Barru aldean izan ditugu tenperatura altuenak; ez dugu oso eguraldi sanoa izan. Kontuan hartu behar da aurten, udako tenporak maiatz bukaeran izan direla, hortaz, uda astronomikoari hiruzpalau aste jan dizkiogula honezkerok. Hala ere, euria eta haize nahasia datoz laster.

Zer diote tenporek udararen gainean? Zelan dator?

Tenporetako egubakoitzak haize nahasia utzi zigun, hasieran hego-ekialdekoa, gero hegomendebaldekoa, eta horrek eguraldi sargoria adierazten zuen. San Juanetatik Santiagotarako



“Uztailean, beroaldi latzak izango dira, baina baita oinaztuak eta trumoiak ere”

epeak uda koskaduna adierazten du. Maiatzaren 25a lasaiagoa izan zen: goizetik euria egin zuen, eta gero giro epelagoa izan zen, nahiz eta gauez freskatu egin zuen.

Hori guztia ikusita, uztail koskatsua izango dugula uste dut: bero aldi latzak izango dira, bai, baina baita oinaztua, trumoiak... ere. Abuztua, ordea, soseguz etorriko zaigu. Udaberri eta uda hasiera nahasi baten ondoren,

abuztuak lasaitasuna ekarriko du, eta askoz ere eguraldi sanoagoa.

Ekaina erdi aldean, sekulako bero aldiak izan ditugu.

Horrelako bero aldiak ere normalak dira.

Baina klima aldatzen dabil? Lehen ere horrela izaten zen?

Klima aldatzen dabilen... bai eta ez. Orain dela berrogei urte, gaurko bezalako bero egunak izaten ziren. Beroa berdin-berdin dator. Desberdintasuna da hemen zelaz hartzen dugun. Adibidez, belar eta zuhaitz artean baldin bazaude, freskotasan handiagoa igarriko duzu. Baina orain, paisaia aldatu dugu: gero eta teilatu, porlan, kale... gehiago ditugu. Hori guztia jaso egiten dute. Horrez gain, kontuan hartu behar da zenbat milaka motor, auto, tximini, erregai... erabiltzen ditugun. Horren eraginez, bero produkzioa gorantz doa.

Hortaz, klima aldaketaren eragileak geu gara?

Bai, geu ari gara klima aldatzen. Beroa jasotzeko modu horren eraginez, sortzen diren lainoak orain berrogei urtekoak baino askoz handiagoak dira. Askok esaten dute orain zirimirri gutxiago egiten duela, eta hori da bero handi honek gero eta trumoi jaso handiagoak pizten dituelako. Bero boladak gero eta markatuagoak dira, batez ere, hirietan.



Bainurako aukerak

DEBAGOIENA

• Igerilekuen udako ordutegia

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan daude Debagoieneko igerileku publikoak. Guztiek hasi dute udako denboraldia –Oñatikoak uztailearen lehen hasiko dira–, eta horrek esan nahi du goizetik iluntzera arte izango direla zabalik, eguerdian itxi barik. Arrasaten, domeketan ere egun osoz zabalik izango dira kanpoko igerilekuak; gainerakoetan, eguerdian arte. Abuztuan ere zabalik izango dira igerilekuak, egun osoz, Aretxabaletan izan ezik; horietako abonatuak Arrasatekoetara joan ahal izango dute.

• Oñatiko Usako erreka

Oñatiko Usako erreka ere zale asko ditu gurean. Udalak ez du iaztik hona inongo berrikuntzarik egin, baina iaz, putzuaren inguruan atsedean hartzeko zelaia prestatu zuen.



Udaberri freskoenetakoa



HAU BEROA! Ekainaren 17a, urteko egun beroena

Ekainaren 17a, joan den astelehena, izan genuen urte osoko egun beroena. Alboko argazkia egun horretan ateratakoa da, arratsaldeko lauretan. Eguzkitan 45 graduko tenperatura izan zen. Hala ere, batez besteko tenperatura 37 gradukoa izan zen. Egubakoitzean, hilaren 14an, 35 gradu izan ziren, eta domekan, 16an, 36 gradu.

UDABERRI NORMALA Martxo eta apiril onak eta maiatz hezea

Pello Zabala meteorologoaren esanetan, “udaberri normala izan dugu”, tenperatura eta euri kopuru normalekin. “Martxoan, euria eta elurra izan genituen, baina hilabete bukaera garbia izan zen; apirilean, berdintsu, bigarren hamabostaldi zoragarri batekin. Maiatzean, ordea, euri morderoa izan dugu. Arantzazun ia 250 litro jaso ziren”, diosku.

MAIATZA Aurtengo udaberriko hilabete euritsuena

Aurtengo udaberriko hilabete hezeena maiatza izan da. 21 egunean egin zuen euria, baita gogoz egin ere hainbat egunean: lehenengo hamarkadan, azken urteotako udaberriko egun euritsuenetariko bat izan genuen, 37,7 l/m²-rekin. 1998ko maiatzaren 3a ezkerok ez zuen udaberri horrenbeste euri egiten. Egun hartan, 43,8 l/m² jaso genituen.

EKAINA

Azken urteotako ekainak ez dira hain beroak izan

Joan den asteko 37 graduak duela lau urteko ekainean gaudituen genituen azkenekoz. 98ko ekainaren 20an, 38 gradura iritsi zen merkurioa. Horien ondoan, azken urteotako ekainak ez dira hain beroak izan; gehienetan, 20 eta 30 gradu arteko tenperaturak izan dira nagusi. Iaz, ekaina epela izan zen; bi egunean bakarrik gaudituen genituen 30 graduak.

AZKEN UDABERRIAK		
Urtea	Temperatura	Euria
2002	13,46°	437 l/m ²
2001	14,52°	268 l/m ²
2000	14,32°	349 l/m ²
1999	14,38°	316 l/m ²
1998	13,71°	463 l/m ²
1997	14,72°	358 l/m ²
1996	14,58°	191 l/m ²
1995	13,17°	190 l/m ²
1994	14,04°	445 l/m ²
1993	14,19°	389 l/m ²

URTEGIAK

• Garaio

Arabako hondartzetatik ondoen dagoena da. Udako denboraldiko –ekainaren 15etik irailera bitartean–, Arabako Foru Aldundiak bigarren sorospen postu bat ipini du; lau begirale izango dira.

• Landa

Askaria edo bazkaria egiteko zeuden picnic mahaia berri ditu Diputazioak aurten. Horrez gain, egunero-egunero sorospen zerbitzua izango da. Sorosle bik zainduko dute bisitarien bainua.

• Ulibarri

Ulibarrin ere sorospen zerbitzua izango da egunero, udako denboraldiak irauten duen artean. Berritasun gehiago dago: pasean joateko ibilbidea bukatzen ari dira, 54 kilometrokoa, urtegien inguruan. Hil honetan estreinatuko dute seinalizazioa.

HONDARTZAK

• Deba

Karel baxuagoa, sarrera zabalagoak eskailera eta maldekin, egurrezko pasabideak, sorospen dorre berria, eta hondartzako kirolak egiteko sareak ipini ditu edo ipiniko ditu laster Udalak.

• Gipuzkoako gainerako hondartzak

Gure kostaldeko hondartza guztietan dago baimendua bainatzea. Hala ere, Saturraranean, Orion eta Zarauzko zati baten kontuz ibiltzea gomendatzen dute, urak kutsatuagoak daudelako.

Debagoieneko langileen %90ek bat egin zuten eguazteneko grebarekin

■ *Enpresa garrantzitsuenetako langileek eguaztenean egin zuten greba Debagoiengan*

■ *Kooperatibisten Ahotsa, LAB, ESK eta EILASEk deituta, manifestazioa izan zen*

■ *Erabakitako zerbitzu minimo gehienak bete egin zituzten Debagoiengan*

GOIENKARIA

Goizean goiz elkartu ziren, baina eguaztenean ez zuten lan handirik izan grebaren aldeko piketeak; Debagoieneko enpresa eta komertzio gehienak itxita egon ziren. Hori horrela, ibarreko langileek ezetz esan zioten Madrilgo gobernuak erabakitako Langabezia Legearen Erreformari. GOIENKARIAri emandako datuen arabera, Arrasaten, Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Elgetan langileen %90ek egin zuten greba. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan komertzioak itxita egon ziren arren, grebak eragin txikiagoa izan zuen, zenbait enpresatako langile batzuek eguaztenean egin zutelako greba.

INDUSTRIA GELDI

MCCko enpresa nagusiek itxi egin zuten eguaztenean. Fagor Gargartzak eta Fagor San Andresek, besteak beste. Are gehiago, sindikatuetako ordezkarien esanetan, 50 langiletik gora duten enpresa garrantzitsuenek itxi egin zuten eguaztenean. Antzuolan, Elgetan eta Oñatin guztiak egin zuten greba. Arrasaten, Gelman %75 egon zen geldirik eta Polmetasan, % 50. Bergaran, TTTk izan ezik, beste guztiak ateak itxi zituzten.

ZERBITZUAK ERE GELDI

Zerbitzu garrantzitsuenek ere eguaztenean egin zuten greba. Udalek, udal zerbitzuek, Mankomunitateak eta osasun zerbitzuek, esaterako. Aipatzekoa da Arrasateko INEMekoek ere itxi egin zutela, ipinitako oharraren arabera, piketeen eraginez. Oro har, kalean eguneroko saltokien ateak egun osoan itxita ikusi genituen. Nagusien artean, aipatzekoa da Eroski Hipermerkatua. Gainerako dendek ateak itxi arren, bazegoen bat edo beste zabalik. Horietan, ordea, ez zebilen erosle askorik.

EGUENEKOA

UGTk eta CCOOk, bestalde, egunerako egin zuten deialdia, eta, emandako datuen arabera, industrian %20k egin zuten greba. Industrian izan ezik, grebaren eragina ez zen igarri. Ez zuten piketerik antolatuta eta manifestazioa Donostian egin zuten.

Bi sindikatuotako 100 bat lagun joan ziren ibarretik manifestaziora. Herri nagusiei erreparatu, Arrasaten, Gelman %25ek egin zuten lanuztea, Polmetasan %50ek, Feliciano Aranzabalen ia denek eta Joman erdiak. Bergaran, TTTk. Oñatin ia ez zuten eraginik izan. Aretxabaletan, Cerrajera Valle de Lenizen eta Azben ia langile guztiak egin zuten greba eta Beroan, %10ekedo. Azkenik, Eskoriatzan, Ezkurran eta Alzan ia denek eta Fundiciones Lenizen, erdiak.



EUSKAL ESPARRU PROPIOA

Grebarekin bat eginez, manifestazioa izan zen martitzenean Bergaran. Batetik, LABek deituta, eta bestetik, ESK, EILAS eta Kooperatibisten Ahotsa sindikatuek deituta, sindikalista dezente batu ziren Lege Erreformaren kontra. Adierazitakoaren arabera, erreformari kontra egiteaz gain, euskal esparru propioa aldarrikatzeko ere balio izan zuen grebak.

Bestalde, horrelakoetan ohiko den moduan, piketeak ibili ziren goizean; eta lan askorik egin ez bazuten ere, dendaren bat zein beste zabalik izan zen, Arrasateko DIA supermerkatua, esaterako.



UNAI MARTÍNEZ
ELA

Debagoiengan greba orokorra izan dela esan dezakegu; langileen %95 irten dira grebara. Oro har, egun ona izan da euskal langileendako. Piketeok ere ez dugu lan handirik izan, eta horrek erakusten du greba erabatekoa izan dela.




TITO ELKORO-IRIBERE
LAB

Oro har, ibarrean greba orokorra izan da. Horrek erakutsi du Euskal Herriak hitza eta erabakia nahi duela eta herri bat dela. Erreformaren eta inposaketaren kontrako pausoa izan da. Bata-sun sindikalean aurrerapausoa eman dugu.



PILAR ETXANIZ
EILAS

Era positiboan baloratzen dugu grebaren eragina, irakaskuntza osorik atera delako kalea. Erakutsi du arrazoia dugula erreformaren aurrean. Espero dugu hau lehenengo urratsa izatea eta aurrerantzean ere bide beretik segitzea.



JUAN JOSE AZKARATE
ESK

Gure ibarrean eta Gipuzkoan greba orokorra izan da, nahiz eta Bizkaian eta Araban eragin txikiagoa izan. Batasun sindikala garrantzitsua izango da aurrerantzean. Bi greba egunak gehituta Euskal Herriak ezetz esan dio erreformari.

BAILARANZEHAR

Aurten irabaziak %5 handitzea espero du MCCk

Iazkoa urte gaitza izan zen MCCrendako, eta 2000rekin alderatuta, %8,7 jaitsi ziren taldearen irabaziak. Hala ere, aurtengo bigarren seihilabetekean ekonomiak gora egingo duela aurreikusita, joan den urtearekiko %5eko hazkundea espero du taldeak, hau da, 2001. urtean baino %5 gehiago irabaztea. Iazko emaitzen eta aurtengo aurreikuspenen berri emateko, prentsaurrekoa eskaini zuten astelehenean, hilaren 17an, MCCko buruek Olandixoko egoitza nagusian. Iaz, oro har, korporazioko enpresek nahiko portaera ona izan zutela adierazi zuten taldeko buru Jesus Cataniak, kontuan izanda mundu osoan ekonomiak izandako moteltzea. Datu batzuk aipatzearren, salmentak %14,7 hazi ziren iaz, 8.106 bilioi euro arte. Bestalde, 872 milioi euroko inbertsioak egin zituzten %18ko hazkundearekin, eta, enpleguari dagokionez, urtea 60.200 langileekin amaitu zuen MCCk. Nabarmenezkoa da taldeko enpresetan lanean diharduten langileen erdia baino gehiago Euskal Autonomia Erki-degotik kanpo ari dela lanean, eta %11k Espainiatik kanpo egiten dutela lan.

Nazioartean hedatzea da MCCk 2004. urtera arte egina daukan Plan Estrategikoaren ardatz nagusietakoa. Horretarako, urrats garrantzitsuak eman zituen iaz taldeak eta, aurreneko aldiz, MCCren salmentaren erdia atzerrian egin zen, 1.769 milioi euro, hain justu. Esaterako, industria taldearen salmenten %51 nazioartean egin ziren iaz, 2000. urtean baino %13 gehiago. 2001. urte amaieran, produktzioa 34 lantegi zituen atzerrian MCCk, 5.000 langilerekin. /ENEKO AZKARATE

'Made In Euskadi' saria Fagor Automation-endako

Euskal Enpresaren Gaua ospatu zuten astelehenean Bilboko Arriaga antzokian. Iaz nabarmendu ziren Euskadiko enpresa eta enpresaburuak saritu zituzten bertan. Lau sari banatu zituzten. Saritutakoen artean, Debagoieneko enpresa bat: Fagor Automation. 'Made In Euskadi' saria eman zion lehendakariak Fagor Automation-eko zuzendari nagusi Julen Busturiari. Beste sarituak Gusacor, Jez Sistemas Ferroviarios eta La Naval itsasontziekin lan egiten duen Knutsen OS norvegiarra izan ziren. /E.A.

BERGARA

Udalak txakurren jabeen zuzendutako kontzientziario kanpaina egingo du

Guztiok ditugulako gure beharrak izeneko kanpainari ekingo dio Udalak uztailan. Txakur-heziketa kanpaina da, eta xede bi ditu: garbitasuna eta segurtasuna. Txakurra duten herritarrei zuzenduta dago, eta xede bi horiek bermatzeko, txakurren gorotzak jaso eta ondoren botatzeko poltsak eta zakarrontzi bereziak jarriko ditu herrian barrena.

HERRITARRAK KONTZIENTZIATU

Udalak egindako erroldaren arabera, 1.000 txakur inguru daude Bergaran. Kanpaina txakur horien jabeengana zuzenduko dute: batetik, txakurren gaineko Udal Ordenantzaz informatzeko, eta, bestetik, kontzientziatzeko.

Udal ordenantzak berak ere kanpainaren xede diren garbitasuna eta segurtasuna jasotzen ditu. Ordenantzak dio debekatuta dagoela txakur gorotza uztea bide eta plaza publikoetan, umeen parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den guneetan. Hain zuzen, Udalak egokitutako lekuetara bota beharko da gorotza. Hala izateko, bitartekoak jarriko ditu: gorotza jasotzeko poltsak eta botatzeko zakarrontziak. Hamabi bat jarriko dituzte, uztailan; gero txakurren jabeen kanpainaren informazioa helaraziko die. Kanpainarekin Udaltzaingoaren zaintza areagotu egingo da, eta isuna 30-300 euro artekoa izan daiteke. /M.B.

ELGETA

Mauthausen-eko gas-ganbaran elgetar bat hil zuten naziek duela 60 urte

Ekainaren 28an, 60 urte beteko dira naziek Tomás Rebollo Etxaniz elgetarra hil zutela. Guztira, 49 euskaldun hil zituzten Austriar zegoen Mauthauseneko kontzentrazio-esparruan. Horien artean zegoen 1907an jaiotzen elgetarra. Hil aurretik, gelakideari ikurrin bat eman ei zion, eta bere emazteari emateko esan zion. Gero, gas-ganbaran hil zuten.

Udaletxera 1989. urtean bidalitako gutun baten bidez izan dugu naziek elgetar hari egin ziotenaren berri. /OXEL EROSTARBE



ARRASATE

Herriko berrogeita lau taldek bat egin dute Batasunaren ilegalizazioaren kontra; askatasunaren eta guztion eskubideen kontrakoa dela diote

Astelehenean, herriko 44 taldek sinatutako manifestua aurkeztu zuten Arrasateko Udalean. Besteak beste, Batasuna legez kanpo utziz gero, "urte askoko lanari esker lortutako askatasunean eta eskubideetan atzerapausoa emango dela" adierazi zuten manifestuaren bitartez, eta horregatik kezka azaldu zuten. Gizarte demokratikoaren oinarrien kontrako neurria dela ere gaineratu zuten, bai eta aurrerantzean arazo gehiago sorrazteko arriskua duela ere; izan ere, adierazpen askatasuna, ideologi askatasuna eta elkartzeko eskubidea moduko oinarritzko eskubideen kontrakoa da. Sinatzaileen artean, ELA, LAB, ESK, AHTren Kontrako Taldea, Txistulariak eta Yoga Elkarteak izan ziren, besteak beste. Gaur, bilkura isila deitu dute, 20:00etan, plazan.

OÑATI

Laixanek urteko Batzar Orokorra egingo du datorren martitzenean

Datorren astean, martitzen arratsaldean, egingo du Laixan euskara elkarteak urteko Batzar Orokorra. Kultura etxean izango da, 19:00etatik aurrera.

Batzar Orokorretan ohikoa den moduan, aurreko akta onartuko dute, iazko diru kontuak zelan joan ziren azalduko dute, aurrera begira dituzten egitasmoen berri emango dute eta Zuzendaritza batzordeko kide berri hautatuko dituzte bertaraten diren bazkideek. Hamar lagunek osatzen dute Zuzendaritza batzordea, eta urtero aldatzen dute batzorde erdia. Behin batzordea osatuta, presidentea hautatu beharko du zuzendaritza batzordeak.

GAZTE SAILA, ERRONKA BERRIA
Aurrera begira dituzten asmoei dagokienez, aipatzekoa da Gazte Saila sortu berri duela euskara elkarteak eta sail hori martxan jartzeko lanean diharduela. Datorren ikasturte-

an hasiko da lanean Gazte Saila. Laixaneko ardura-dunek azaldu digutenez, horixe da aurrera begira duten egitasmo garrantzitsuena. Sail horretaz arduratuko den teknikaria ere kontratatu du Laixanek, Onintza Negeruela oñatiarra, hain justu ere.

AURRERA EUSKAL HERRIA PLATAFORMA

Zapatuan, 19:30ean, Aurrera Euskal Herria plataforma aurkeztuko dute plazan. Batasunaren ilegalizazioa edo Arranoaren enbargoa salatzea da, besteak beste, plataformaren helburua. /AINTZANE IRIZAR

Zertzelada

Gazte Saila sortu berri du Laixanek eta hori abian jartzeko lanean dihardu. Horixe da datorren ikasturteari begira duen erronka nagusia.

ARETXABALETA

Cyber-industrialdea proiektua jarriko dute abian Aretxabaletan

SPRI erakundeak enpresa digitala edo Cyber-industrialdea proiektua aurkeztu zuen martitzen goizean Aretxabaletako udaldegian. Teknologia berrietan oinarritutako esperientzia izango da Eusko Jaurlaritzak abian jarriko duena, eta e-debagoiaren egitasmoaren barruan dago. Esperientzia pilotua

izango da Aretxabaletakoa. Enpresa digitala Interneten oinarrituko da. Enpresek hainbat zerbitzu jasoko dituzte Internet bidez, besteak beste, merkatu berriak irekitzeko eta erosle eta saltzaileekin harremanak izateko aukera. Esperientziak arrakasta izanez gero, beste industrialde batzuetara eroango dute. /M.A.



Martitzenean aurkeztu zuen SPRI erakundeak Cyber-industrialdea.

ARAMAIO

Enrique Jordá taldeak kontzertua emango du Azkoagako jaietan

Azkoaga auzoko jaiak izango dira sanjuanetan. Ospakizunen barruan, domekan, Enrique Jordá kameratzen kontzertua izango da auzoko elizan. 12:00etan hasiko da eta, Inmaculada Saratzagak zuzenduta, lau pieza interpretatuko ditu harizko orkestrak, tartean, Tschaikowskyren *Sokarako Serenata*. Enrique Jordá kameratzen kideak Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideak dira. Gero, San Juan egunean, meza izango da, eta lore bedeinkapena egingo dute eta herriko abesbatzak kantatuko du. /U.M.

ESKORIATZA

San Juan bezpera ospatuko dute eskoriatzarrek domeka gauean

Eskoriatzan dena gertu daukate Axtroki Euskara Elkarteak domekan San Juan bezpera ospatzeko. 17:00etan, umeak eta gurasoak txorimaloa topatzera eta San Juan loreak batzera irtengo dira Ludotekatik; 18:30ean, bonba japoniarrik jaurtiko dituzte; eta 19:00etan, txistularien kalejira egongo da; 22:30ean, San Juan Sua egingo dute herriko plazan. Aurtun, areto futboleko kideek emango diote su, mailaz igo direla ospatzeko; 23:30ak inguruan, berriz, Santa Ageda mutilek tantaia altxatuko dute. /MIRARI ALTBUE

LEINTZ GATZAGA

Lorategiko lanetan adituak diren langile bi behar ditu Udalak

Gatzagako Udalak uztailaren 1ean hasi eta abenduaren 31ra arteko lan kontratua eskaini gura die lorategiko lanetan adituak diren langile buri.

Udalak INEMekin batera egin du lan-eskaintza. Interesatuak gida baimena eduki eta lorategiko lanetan eskarmentua izan edo, gutxienez, beharrezkoa den tresneria erabiltzen jakin beharko dute. Programaren helburu nagusiak hauek dira: herriko lorategiak eta berdegunak sortzea eta daudenak berreskuratzea. /A.G.

Zabalik

MIKEL
LIZARRALDE

Txikia

Jon Abril aspaldi ezagutzen dugunok badakigu bere gorputza bezain handia dela euskalgintzaren esparruan kazetari beratarrek egin duen lana. *Ttipi-ttapa* aldizkari eta telebistako, *Egunkaria*-ko, *Aizu!*-ko, Euskadi Irratiko eta Jonen kolaboratu duen gainerako komunikabideetako lankideok bere lanerako gogoia zuzen-zuzenean bizi izan dugu, eta badakigu beti izan dela edozertan laguntza bat emateko prest.

Orain dela bi urte eskas, baina, Jonen aurpegi oso ezberdin bat erakutsi nahi izan ziguten Berakoa inondik ere ezagutzen ez duten komunikabideek. Madrilgo Auzitegi Nazionalaren atarian, eta Ttipi-ttapa telebistarako irudiak hartzen ari zela, polizia uniformatu batzuek gerturatu, grabazioa kendu eta atxilotu egin zuten. Delitua? Auzitegira sartzen ari zen polizia auto baten matrikula grabatu izana. Antena 3, Tele5, ETB eta TVEko kamerek egunero egiten dutena terrorismo delitua omen zen Jonen kasuan.

Harrezkeroztik gertatu den guztia jakingo ez bagenu, euskaldun kutsua duen edozerk Madril en jasotzen duen tratamenduari egotziko genioke Joni 2000ko abuztuaren gertatutakoa. Baina data hartatik hona gertatutako dena hain izan da kafkianoa, sinestezina eta beldurgarria, ikara eta inpotentzia barrubarrura sartu zaigula denoi. Jon txiki sentitu da Estatu aparatuaurrean, oinarririk gabeko akusazioei ezin aurre eginik; eta euskal komunikabideetako langileak ere txiki sentitu gara, beren burua "kazetari" jotzen duten hainbatek tutik ere esan ez dutelako bidegabekeria honen aurrean.

Jonek ez du ezer egin. Edo bai. Bere lana egin du. Eta bere lana egiteagatik inhabilitatu egin dute sei hilabeterako. Fiskalak eskatzen zuen sei urteko kartzela-zigorren aurrean, pozik egon beharko dugu, gainera.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



San Juan sua Oñatin

Udako solstizioarekin batera argia, udaren gorespina eta garbi izatearen erri-toak berpizten dira indar osoz. San Juan bezperan, ekainaren 23an, Euskal Herriko herri, baserri eta hiri askotan suak pizten dira. Tradizioz, deabruak eta gaiztakeria uxatzeko bitartekoa zen sua. Aspaldidanik, herrietako neska-mutilek gozatzen duten festaren oinarri bihurtu da.

Oñatin San Juan suaren ardura Laixanek hartu zuenean, festa bezala izan zen, bertan kantak eta dantzak izaten zirelarik. Azken urteotan, aldiz, ekintza hauez gain, beste bat sartu du: tradizio zaharrari jarraiki, Euskal Herriko zenbait gaitz uxatu nahian, gaitzonen eragileen salaketa. Horretarako testu bat irakurri eta kartelen batzuk erre izan dira.

San Juan sua antolatzearen ardura Laixanena bada ere, San Juan sua bera herriarena da, eta Laixanek ez du ekintzaren erabilpena beretako mugatu nahi. Laixanek euskararen aurkako erasoak salatu izan ditu, eta urte batean Baterak euskal preso politikoen eskubideen bortzaketa salatu zuen.

Aurtengorako ere asmo berbera daukagu, eta herriko elkarte guztiei parte hartzeko aukera eskaini nahi diegu, bakoitzak "bere" gaitzak suaren bidez "uxa" ditzen. Bete beharreko ezinbesteko baldintza ekintza euskara hutsez egitea da. Laixanek ez dauka zerikusirik ez erantzukizunik bereak ez diren ekintzatan.

Herriko elkarteren batek San Juan suan parte hartu nahi izanez gero, Laixanera zuzendu beharko du datorren eguztina (ekainaren 19a) bitartean. Gurekin harremanetan jartzeko: Errekalde 25, 2. 20560 Oñati; edo, 943 71 63 11 telefonoa; edo, *laixan@topagunea.com* helbide elektronikoa.

LAIXAN ELKARTEA
Oñati

Edorta Mendietari erantzuna!

Baliteke jendea horren borrokatzaile ikusteak sorrarazten didan penagatik izatea". Hau irakurri eta odola pil-pilean jartzen zaigu, Edorta. Zure harrokeri eta hitz iraingarri hauek gure mesprezu handiena merezi dute. Penagarria, Edorta? Penagarria euskal herritarrok eta oro har Euskal Herriak bizi duen egoera da. Batzuek bakearen eta askatasunaren alde konpromisoak hartzen duten bitartean, beste batzuek bizi dugun egoera alimantzen jarraitzen dutela. Penagarria borrokaren definizioa ez ezagutzea: aldarrikatzen dena lortzeko ahalegina. Penagarria bizi dugun injustizia, zampaketa eta inposaketa honen aurrean, injustizia, zampaketa eta inposaketa bultzatzea. Penagarria espagnolaren aurrean makurtzea nahiago izatea Euskal Herriaren alde lan egitea baino. Penagarria konformismoaren apologia egitea. Penagarria...

Egoera penagarri honen aurrean borroka da euskaldunok dugun alternatiba bakarra. Borroka da bizi dugun egoera aldatuko duen ekintza eta borroka izan da, da eta izango da benetan bakerako bidean jarriko gaituena. Borrokarako garaia beti da, bai borroka instituzionalerako, bai klase borrokarako, bai herri borrokarako, bai... Borroka garaia da eta garbi eduki behar dugu borroka gabe jai daukagula.

Honen harira zuk egiten zenituen bi galderei erantzungo diegu: "Irabazi ote dugu ezer borrokaren bidez? Non izango gintezke borrokarik izango ez balitz?". Orain arte eman diren urrats guztiak urteetan herriak bere eskubideen alde borrokatuaz lortu dituen garaipen txikiak dira. Eskubide horien alde borrokatuko ez balu, adibidez: ez legoke autodeterminazio hitza gure belarri edo ahotan. Borroka ez balitz egon-

go, lasai, Edorta, ez zenuke gune honetan idazteko aukerarik izango.

Zuk eta zu bezalako pertsonak saldu zuten Euskal Herria españolekin estatutua firmatuz, eta oraindik hor jarraitzen duzue saldukerietan edukirik gabeko elkarrizketa bultzatzen konponbidea zerutik etorriko delakoan! Eta, bide horretatik jarraituz, behintzat... bai horixe, pikutara!

ATXABALTAKO SEGI
Aretxabaleta

Eskerrik asko,
Arrasateko Errugbi
Taldearen izenean

Idatzi honen bitartez Arrasateko eta ibarreko biztanle guztiei gure eskerririk beroenak eman nahi dizkiegu joan zen asteburuan Arrasateko Errugbi Taldeak antolatutako ekintzetan parte hartzeagatik. Gure asmoa beti izan da ahalik eta jai-festa herrikoien antolatzea, bide batez, gure kirol xeble haur gerturatzuz; eta, esan dezakegu aurtengo jendearen partaidetza oso-oso garrantzitsua izan dela. Honek erakusten digu jendearengan oso harrera ona izaten duela gehienbat herriko plazan antolatzen den Garagardo Festak. Eta kontuan izanik antolaketa ia guztia Errugbi Taldearen esku egoten dela, oraindik hobeto. Hurrengo urteetan errepikatzeko indarrak ematen digu erantzun honek.

Eskerrak, era berean, gure betiko firma laguntzaileei ere, euren laguntza barik ezinezkoa izango bailitzateke horrelako ekitaldiak aurrera eramatea.

Jakinarazi nahiko genuke, bestalde, herri mailan asteburu horretan gure bazkide-laguntzaileen artean Lekeitioko Emperatriz Zita talasoterapiaren, uztailaren 20an eta 21ean, bi pertsonarendako asteburuko bidaia bat zozketatu zela. Saritutako zenbakia hau izan zen: 00318

Bazkide txartela zenbaki honekin bat datorren jabea saldu zion pertsonarekin harremanetan jar dadila edo, bestela, 609 01 54 63 telefonora dei dezala eta Rikardo Ercillagatik galdetu. Zorionak eta aprobetxa dezatela.

JOSEBA MAIDAGAN
Arrasate

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Ohikoa ez izan arren, badi-
ra ume txikiei txertoa ematearen aurka daudenak edo, behintzat, txertoa ez ematea nahia-
go dutenak, umearendako hobe dela-

koan. Horixe aldarrikatzen du, esaterako, *Liga Para la Libertad de la Vacunación* izeneko talde batek. Jose Luis Abuin naturopata arrasatearra talde horretako kide da. Gaia

intereskoa iruditu zaigu eztabaidarako. Izan ere, oso gutxi dira umei txertoa ematea zalantzan jartzen duten gurasoak. Hona, bada, gaiaren gaineko ikuspuntu bi.

Zer iritzi daukazu umei ematen zaizkien txertoen gainean?

Gaixotasunei aurre egiteko tresnarik onena



CARLOS CANDUELA
Pediatra

Hilabeteko haur jaioberriekin hasi eta 16 urtera arte, hainbat gaixotasuni aurre egiteko txertoa hartzea borondatezkoa da, eta ez derrigorrezkoa. Hala ere, gure gomendioa da txertoa hartzea, frogatuta dagoelako hainbat ikerketa egin ondoren, osasunarendako ona dela eta hainbat gaixotasun ekidin daitezkeela. Oro har, abantaila askoz ere gehiago ditu txertoa hartzeak ez hartzeak baino. Euskal Autonomia Erkidegoan txertoa hartzeko adinean dauden haur eta neska-mutikoen %95ek hartzen dute.

Osakidetzak onartutako egutegiaren arabera, 11 gaixotasunen aurkako txertoak ematen ditugu gaur egun. Honakoak dira: tuberkulosia, dikteria, tetanosa, toserina, polioa, hepatitis, hemofilusa, meningokokoa, elgorria, errubeola eta hazizurria edo papera. Haur eta gaztetxoendako txertoa hartzeko egutegia 16 urterekin amaitzen da. Hala ere, txerto batzuk, hepatitisaren, tetanosaren eta dikteriaren aurkakoak, hain justu, hamar urtetik hamar urtera hartzea gomendatzen dugu. Edozelan ere, 16 urtetik gora, zauri bat egiten dugunean bakarrik hartzen dugu tetanosa eta besteak, ostera, beharra egon daitekeela ikusten dugunean, herrialde exotikoren batera goazenean, eta abar.

Zergatik gomendatzen dugu txertoak hartzea eta zergatik dira onak gaixotasunei aurre egiteko? Bada, txertoei esker, goian aipatutako gaixotasunak ia desagertzeaz daude edo, behinik behin, oso gutxitan gertatzen dira. Estatu Espainoleko datuak begiratu, polio kasu bakarra izaten da urtean; errubeola, 200-400 kasu urtean; elgorria, 100 kasu urtean; tetanosa, 25 kasu urtean... Argi dago, beraz, gero eta gaixotasun kasu gutxiago gertatzen direla, eta hori, txertoei esker da. Aipatutako gaixotasun horietako batzuk, gainera, oso larriak dira.

Umei txertorik ez ematea borondatezkoa da. Norberak aukeratu dezake zer egin. Egia da, txertorik ez hartzea erabakitzen dutenak hain gutxi direnez, txertorik ez hartu arren, oso zaila dela gaixotasuna hartzea, gehienek hartuta dutelako eta horiek gaixotzen ez direnez, ez dietelako kutsatuko hartu ez dutenei. Baina, gehienek txertorik ez hartzea erabakiko bagenu, egoera bestelakoa izango litzateke.

“Argi dago gero eta gaixotasun kasu gutxiago gertatzen direla, eta hori txertoei esker da”

Txertoen ondorio kaltegarriak aintzat hartu



JOSE LUIS ABUIN
Naturopata

Duela hamahiru urte Bartzelonan sortu zen Liga Para la Libertad de Vacunación izeneko elkartearen gaudenok txertoa hartu osteko ondorio kaltegarriak kezkatuta gaude. Izan ere, hainbat txertok geroago eta eragin kaltegarriagoak sortzen dute. Bestalde, txertoa hartzeko programak ugartu egin direla uste dugu eta horrek ere kezkatzen gaitu, hori ez delako osasungarria.

Azken hamarkadetan medikuntzaren eta zientziaren arloan asko ikertu eta aurreratu da, baina oraindik ere, gure sistema immunitarioa ezezaguna da medikuntzan. Bestalde, giza-

teria mikroorganismoekin harreman zuzenean egon da eta egongo da. Gizateriaren osasun egoera hobea izango da, pertsonen bizi baldintzak hobetzeko ahalmena dugun neurrian, era honetan sistema immunologikoa puntuan eduki dezagun. Kontuan izan behar dugu birusak eta mikroorganismoak geroago eta indartsuagoak izango direla eta errazago egingo dietela aurre farmakoei; mutatu egingo dutela eta gaixotasun berriak sortzeko ahalmena izango dutela eta, ondorioz, hauei aurre egiteko txerto berriak aurkitu beharko ditugula... bukaerarik gabeko kontua, beraz. Argi dago, hortaz, txertoak ez direla pertsonen osasun arazoendako soluzio egokia.

Honen guztiaren aurrean, uste dut zilegi dela jarraian aipatu ditudanak aintzat hartzeko eskatzea: batetik, osasun zerbitzu publikoek ohiko medikuntzari alternatibak eskain diezaiotela, hau da, naturismoa, homeopatia..., aintzat har dituztela, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala. Bestetik, txertoak hartzeko edo ez hartzeko pertsona orok duen eskubidea aitortu dadila. Era berean, txertoa hartu osteko ondorio kaltegarriak zaintzeko benetako ardurak har daitezela; txertoen ondorio kaltegarriak ganorazko informazioa jasotzea bermatu dadila eta ondorio kaltegarri hauek juridikoki aitortu daitezela; txertoen egutegiak berraztertu daitezela eta beharrezkoak diren edo ez eztabaida dadila; txertoak beharrezkoak izatekotan, izan ditzaketen ondorio kaltegarrien gaineko jarraipen zehatza egin dadila...

Jendea animatu nahiko nuke mediku, botikari eta erizaitari txertoen gaineko informazio zehatza emateko eskatzera.

“Txertoak ez dira pertsonen osasun arazoendako soluzio egokia, badira beste batzuk”

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer proposatzen duzu aparkalekuen arazoa konpontzeko?

Gora eta Behera

ELGETAKO GAZTETXEA



Txalotzekoak dira Elgetako gazteriak erakusten dituen jarrera, ekimenetarako ahalmena eta lanerako gogoia. Era askotako ekimenak antolatzen dituzte: umeekin egun-pasak, jolasak, herri bazkariak, Asentzio Eguna, jaiak... Beti euskara bultzatuz.

HERRI ESKOLAKO OBRAK



Zazpi urte baino ez dira herriko eskola eraiki zutela. Tamalez, akats ugariak dira: pasillo handiegiz, gela txikiegiz, estalitako jolaslekurik eta soinketa gelarik barik... Eta, orain egingo dituzten jantokia eta bi urteko umeendako gela direla eta, gela batzuei azalera murriztu egingo diete eta beste batzuk desagertu egingo dira.



ISABEL RICHARD
Elgetako Gurasoen Elkartearen presidentea

Koplak

Hutsune mundiala

Gorrotatzen dunai oso gaizki gustoko dunai mundiala, iritziak ez dute axola iritsi da ta mundiala.

Jada futbolitis psikosia ezin ekidin inola, sopan ere aurkitu daiteke egun hauetan futbola.

Baloia jaso ezkerretik ta a zelako golazoa, batzuntzat izango da gazia ta besteentzat gozoa.

Nahiz ta mugitzen duten diruaz jotzen diguten adarra, herri askorentzat bihurtu da duten ilusio bakarra.

Orokorrean Japon-Korean somatzen da giro alai, baina zertxobait falta da bertan izateko kriston jai.

Euskal Herrian bertako gauzei diegu afizioa, horregatik han falta zaiguna da euskal selekzioa.

LIERNI ALTUNA

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Aralarrek kongresu eratzailea egingo du oraingo asteburuan Gasteizen. Antolakuntza, ideologia eta ildo politikoa finkatuko ditu. Kongresuaren bezperan, joan den astean, Aretxabaletan izan ziren Aralarko Mikel Basabe eta Patxi Zabaleta. Aralarren nondik norakoak azaldu zizkieten batutakoei. Han esandakoak eta beste hainbat kontu jaso ditugu Patxi Zabaletari egindako elkarrizketa honetan.

ENEKO AZKARATE

Franco hil osteko lehen hauteskundeak egin zirela 25 urte bete dira egun hauetan. Non eta zertan ziharduen Patxi Zabaletak orain dela 25 urte?

Garai hartan, EHASEko kide nintzen. EHASEk parte hartu zuen 1977ko hauteskundearen aurretik izan ziren elkarrizketa luze eta korapilotsuetan, Txibertakoetan eta beste batzuetan. Hauteskunde haietan Nafarroan UNAI izenarekin aurkeztu zen ezkerreko hautagaien zerrendan joan nintzen. EHASEk, baina, abstentzioaren alde egin zuen gainerako herrialdeetan. Esan behar da, urtebete lehenago erreforma demokratikorako erreferenduma egin aurretik, PSOE, EAJ, PSP..., hau da, orduko ohiko alderdiak, hausturaren alde zeudela. Baina 1976ko erreferendumean gehiago handi batek baiezkota eman zion erreformari eta aipatu ditudan alderdi horiek jokabidea aldatu zuten eta hausturaren aldeko aldarrikapenak ahaztu egin zituzten. Guk, ostera, geurearekin segitu genuen, eta elkarrizketaren aldeko apustua egin genuen. Bakarrik geratu ginen gure aldarrikapenetan, EEK ere jokabidea aldatu zuen-eta.

Hartutako bidearekin asmatu zenuela uste duzu?

Ez. Orduko jokabidearekin kritiko naiz eta autokritika egiten dut. Bai orduan, baita ondoren ere, ezker abertzalean irizpide moralei lehenetsuna eman geniola uste dut: dena ona edo dena txarra, salbuespenik egin barik, jakin beharrean bizimoduak askoz ere korapilo gehiago dituela.

Zertan egin du huts ezker abertzaleak azken 25 urteotan?

Bere baitan sentsibilitate bi izan ditu, gutxienez, eta mundu bi horiek dialektika baten murgildu dira urte hauetan. Garai hartan, batzuek uste genuen politikaren deman buru-belarri sartu behar ginela. Herriak duen gatazka nagusiari aurre egiteko elkarrizketa aldarrikatzeaz gain, politikaren deman jokatu beharra genuela. Hori, baina, ez da beti egin. 1979an, Altsasuko Mahaia eta Herri Batasunaren sorrera direla medio, aukera horri bide bat eman genion. Konstituzioaren erreferendumean ere hala egin zen: ETAk abstentzioa aldarrikatu bazuen ere, HBk ezetzaren alde egin zuen eta erreferendumean parte hartze politikoa aktiboa izan genuen. 1981ean, Eusko Legebiltzarrerako lehenengo bozketetan, HB bigarren indarra izan arren, HBk erabaki zuen —Ortiziren proposamenari jarraituz— ez parte hartzea legebiltzarrean. Erabaki horren ondorioz, HBko Mahai Nazionaletik irtetea erabaki nuen.

Urtea igaro da Aralarrek bere bidea egitea erabaki zuenetik. Aralar alternatiba politikoa moduan finkatu da?

Oraindik ez, baina hurrengo hauteskundeetan benetako alternatiba izateko



AMAGIOIA LASAGABASTER

Patxi Zabaleta

ARALAR TALDEKO KIDEA

“Ezker abertzalearen erakunde politiko bakar eta zabala Aralarren hezurduran eraikiko da”

ELKARRIZKETA

“Elkarrizketaren bidez, gatazka politikoa, presoen egoera, gatazkaren ondorioz gerta litezkeen kaltetu guztien egoera... gainditzeko eta konpontzeko moduak aurkitu nahi ditugu”

BOTOAK BERRESKURATU

“Azken hauteskundeetan EAJ-EAra joan ziren boto haiek, abstentzioan geratu zirenenak eta Batasuneko beste bakarren batzuk geureganatu nahi ditugu”

prestatzen ari gara. Zeregin handia dauka. Gure bitartekoak txikiak eta apalak dira oraindik. Gizartean erreferentzia izateko asko falta zaigu, baina gure erabakia izan da hutsetik hastea, hainbat postu politikori eta Arrano edo Herrikori uko eginez. Indar politiko berria garelako eta gure nahia ideiak defenditzea dela argi utzi nahi izan dugu.

Asteburuko kongresu eratzailean egituratuko dira erakunde ardurak?

Aralarren hiru ponentzia nagusiak aztertuko ditugu: ponentzia ideologikoa eta ildo

politikoa onartuko ditugu, dagoeneko eztabaidatuak dauzkagunak; horrez gainera, karguak aukeratuko ditugu. 250 bat lagun elkartuko gara, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetakoak.

Eta Iparraldekorik?

Iparraldearen gainean, gure araudi eta ponentzietan esaten duguna da abertzaleak garen neurrian, Iparraldea eta Hegoaldea direla gure aberriaren zatiak, baina arazo estrategikoak direla medio, politika Hego aldean egingo dugu, Abertzaleen Batasunak

Iparraldean egiten duen moduan. Abertzaleen Batasunaren estrategia iruditzen zaigu egokiena Iparraldean. Horixe da azken hauteskundeek adierazi dutena, baita guztiok onartu beharko genukeena ere, eta ez sukurtsalak egiten hasi, beste batzuetan Madrilgoei hemen egiten dutenagatik leporatzen diegun moduan.

Zein izango da Aralarren ideologia?

Ezkerreko alderdi bat gara eta gure jokabidea bi modutan gauzatuko da: batetik, herri mailako politikagintzan, boterearen aurkako edo desobedientziaren aldeko ildotik, eta, bestetik, maila instituzionalean. Ez dugu erakundeetan bakarrik jokatu nahi: desobedientzia zibilari edo demokrazia esku hartzaileari ere garrantzi handia ematen diogu. Zer esanik ez, herri mugimendu izan litezkeen guztiakin ere jardun nahi dugu. Baina hauteskundeetan eta erakundeetan parte hartzeko prestatzen gabiltza. Bestalde, Euskal Herriaren gatazka politikoa eta gatazka guztiak elkarrizketaren bitartez gainditzeko bideak jorratu nahi ditugu. Elkarrizketaren bidez, bai gatazka politikoa, bai presoen egoera, bai gatazkaren ondorioz gerta litezkeen kaltetu guztien egoera... gainditzeko eta konpontzeko moduak aurkitu nahi ditugu. Horrez gainera, eguneroko politikako arazoei, hau da, hirigintzari, osasunari, irakaskuntzari, langabeziari... erantzuna emateko gauza den alderdia eduki behar du ezker abertzaleak. Horixe da gure asmoa. Ezker abertzalea esparru politiko bakarra denez gero, erakunde politiko bakarra beharko du etorkizunean. Ezker abertzalearen erakunde politiko bakar eta zabala, erradikalismo kutsuko tentazio guztietatik urrunduko dena, Aralarrek eraiki nahi duen hezurdura honetan eraikiko da.

Aralarri etorkizun laburra ikusten diola esan du Iñaki Esnaolak, ezker abertzaleko jendeak ez mugitzeko jarrera daukalako. Zer deritzozu horri?

Adiskidantzako lokarriak izan ditugu beti Iñakik eta biok, baina ez gara izan iduri berekoak politikan, eta kontu horretan ere ez nator bat Iñakirekin. Nahi dugun eta lan egiten dugun adinako etorkizuna izango dugu. Hori bai; zalantza barik, apalatsunez jokatu. Azken hauteskundeetan, Iruñean, bosgarren indar izatetik bigarrena izatera pasatu zen EH. Zerbaitegatik izan zen hori. Ezker abertzaleko jendea, bestalde, aldatu zen iazko maiatzeko hauteskundeetan. Begira zenbat aldatu zen. EAJ-EAra joan ziren boto haiek, abstentzioan geratu zirenenak eta Batasuneko beste bakarren batzuk geureganatu egin nahi ditugu. Eta, zelan ez, Ezker Batuari eta alderdi sozialistari ere kendu nahi dizkiegu botoak.

EArekin, Zutik-ekin, Batzarrerekin eta Abertzaleen Batasunarekin agiri bateratua atera zenuten Aberri Egunean. Aurrerantzean ere elkarrekin lan egiten segitzeko asmorik?

Horretarako irekiak gaude, baina hori ez da gure lanerako esparru bakarra. EAne ere bada jende asko, jende garrantzitsua, gainera, zinez eta zalantza barik bere burua ezker abertzalean kokatzen duela esaten duena. Hori aintzat hartzen dugu eta badakigu etorkizunean komunean lan egiteko bideak egon daitezkeela, baita Batzarreko eta Zutik-eko jendearekin ere.

Eta Batasunarekin?


Hasierako harremanak oso zailak izan arren, normalizatuko direla.

ETAk, azken agirietan kritika zorrotzak egiten dizkizute. Zer deritzozu?

Zorrotzak ez ezik, aintzat hartzekoak ere bai, eta aintzat hartu ditugu. ETArekin agiriak direla-eta, gure ezadostasuna eta aurrerantzean segitzeko asmoa adierazi ditugu. Beste batzuek ez bezala, ETAk, antza, garrantzia ematen dio Aralarren ekinbideari, azken komunikatuak ez dira-eta Aznarren edo Mayor Orejaren kontra izan.

Ongizate Aurrezkia

EUSKADIKO KUTXA



ERLOJU-TERMOMETRO-EGUTEGIA

O P A R I

1.700 € sartzeagatik
(282.856 pta.)

Ongizate Aurrezkian saldoa ireki edo 2002-06-15eko saldoa handitzeagatik. Promozioan eskatzen den gutxieneko kopurua eskudirutan edo beste entitate batzuen txeeen bidez ordaindu behar da. Kontuen arteko intsuldaketak, jadanik helbideratuta dauden sarrerak eta aldizkakoak ez dira baliagarriak izango. Pertsona fisikoentzako eskaintza da hau. Gehienez ere opari bat kontu bakoitzeko. Euskadiko Kutxaren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sukurtsaletan egindako lehen 5.500 eragiketeki emango zaie oparia. Euskadiko kutxak 15 eguneko gogoeta-epea emateko konpromisoa hartzen du, opariarekin gustura ez bazaude, eragiketeta bertan behera utz dezazun.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

Huizik eta Gutiérrezek jantzi zuten txapela

Bergara Hiriako finalean erraz irabazi zioten Sorarrain-Báez bikoteari (22-8)

Huizik eta Gutiérrezek osatutako bikoteak irabazi zuen Bergara Hiria Txapelketa amateur mailan, Sorarraini eta Báezi 22-8 irabazita, martitzenean Udal Pilotalekuan. Promes mailan, berriz, Aritz Lasa eta Aitor Zubiate izan genituen txapeldunak.

Primerako giroa izan zen martitzenean Bergarako Udal Pilotalekuan Bergara Hiriko finalean. Zale ugari batu ziren frontoiko harmailetan. Edozelan ere, finalak izanda, ikuskizun ederragoa espero zitekeen. Promes mailan, Aritz Lasa urretxuarrak eta Uharteko Aitor Zubiatek ez zuten inolako arazorik izan txapela eskuratzeko: 22-2 irabazi zioten Mikel Olaetxea-Iñigo Irureta bikoteari. Zubiate atzelariak partidu bikaina egin zuen, eta partidu amaieran txapelketako jokalaria onenaren saria jaso zuen, Jokin Etxaniz bergarar pilotariaren eskutik.

Amateur mailako finalean, berriz, Enrike Huizi eta Igor Gutiérrez uste baino errazago nagusitu zitzaizaien Eñaut Sorarraini eta Igor Báezi. Sorarrainek eta Báezek behin bakarrik hartu zuten aurre markagailuan, 1-2,



Zutik, Igor Gutiérrez eta Enrike Huizi. Makurtuta, Eñaut Sorarrain eta Igor Báez.

hain zuzen ere. Hortik aurrera, horrela joan zen markagailua: 10-2, 11-4, 12-5, 19-6, 19-8 eta 22-8.

TANTO IKUSGARRIAK

Sorarrainek eta Huizik lehia polita izan zuen aurreko koadroetan.

11-4koan, Sorarrainek hormabiko ederra egin zuen eta 13-6koan, Huizik ezker-gantxo bikainarekin amaitu zuen tantoa. Atzean, berriz, Báezek arazo asko izan zituen. Sakearekin zazpi tanto egin zizkieten eta, horrez gain, pilota dezente galdu zituen. Igor Gutiérrez bergararrak, berriz, partidu ona egin zuen.

Finalean, Igor Gutiérrezek ekainaren 9an profesionalean debuta egin zuen Aritz Laskurain plazentziarra ordezkatu zuen. Partidu amaierako sari-banaketan, Aritzek txapelketako pilotari onenari zegokion saria jaso zuen. Sari banaketan, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Kutxako eta Bergara KEko ordezkariak eta Jokin Etxaniz eta Iker Muruamendiaraz pilotariak izan ziren.

Aurtengoa Bergara Hiria Txapelketaren zazpigarren ekitaldia izan da. Promes zein amateur mailako pilotari onenetakoak ekartzea da Bergara KEko Pilota Sailaren helburua, eta antolatuak azaldu dira aurten ikusitakoarekin.

EDU MENDIBIL

Markel Irizar, Euskadiko txapeldun

Oñatiarra 23 urtetik azpikoan mailan nagusitu zen martitzenean Alegian

Markel Irizarrek Euskadiko erlojukontrako proba irabazi zuen martitzenean Alegian, 23 urtetik azpikoan kategorian. Aurreko astean, Gipuzkoako txapela jantzi zuen txirrindulari oñatiarrak Alegian bertan.

Gipuzkoako Txapelketa lortu eta gero, Irizarrek nahiko erraz lortu zuen Euskadiko txapela 23 urtetik azpikoan mailan. Olarra-Consultec taldeko txirrindulariak bigarren denbora onena egin zuen Alegiako zirkuituan, Andoni Aranaga (Bideki) elite mailako txapeldunaren atzetik. Aranak zortzi segundo atera zizkion Markel Irizarri.

Ibilbidea 34,7 kilometrokoa zen eta Markelek 40 minutu eta 23 segundoko denbora egin zuen. Markelen atzetik Pablo Urtasun (Caja Rural), 14 segundora, eta

Iñaki Lejarreta (Orbea), minutu bat eta 32 segundora, sailkatu ziren, 23 urtetik azpikoetan.

Markel denboraldi ona egiten ari da: erlojukontrako Gipuzkoako eta Euskadiko probak eskuratzear gain, Oteizako lasterketan nagusitu zen eta Bidasoako Itzuliko lehen etapa irabazi zuen.

ASIER ATXA HERNANIN IRABAZLE

Bestalde, Asier Atxa aretxabale-tarrak (Olarra-Consultec) domekan Hernanin jokaturako San Juan Klasikoa eskuratu zuen. Asier erraz nagusitu zitzaizaien esprintean ihesaldiko lau lagunei. Domekakoa Asierrek denboraldian lortzen duen hirugarren garaipena da: aurretik, Pentekoste Saria irabazi zuen Bergaran, maiatzaren 19an, eta jarraian, Nafarroako Itzulian etapa bat irabazi zuen.

E.M.



Markel Irizarrek Euskadiko Erlojukontrako Txapelketa irabazi zuen Alegian.

ARTXIBOA

Kirolabur

PILOTA/ELGETA

Elgetako lau terdiko finalerdia jokatu dira gaur, egubakoitza, 19:30etik aurrera. 23 urtetik azpikoetan, Agesta-Altuna eta Bengoetxea-Mendizabal partiduetatik irtengo dira finalistak, eta kadete mailan, Castillo-Urdaniz eta Esnaola-Elurbe partiduak izango dira.

FUTBOLA/URTZELAI

Jon Urtzelai defentsa oñatiarrak Eibar taldean jokatu du hurrengo denboraldian. Urtzelai Barakaldo taldean ibili zen aurreko denboraldian, 2.B mailan.

ZIKLISMOA/OÑATI

Gazte mailako Gipuzkoako Itzuliko azken etapa Oñatin jokatu da astelehenean, San Juan egunean. Txirrindulariek 96 kilometro inguruko ibilbidea izango dute. Irteera 16:00etan izango da, eta 18:30ak aldera irtitako dira Olakuako helmugara.

BABESLEA



VENTANAS
SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

JAIAK Arrasate

GOIENKARIA • GEHIGARRI BEREZIA • 2002ko ekainaren 21a • SAN JUANAK 2002



SAN JUANAK02

ANDER GILLENEA



Urteko jairik ospetsuenetarikoak igaro dira: San Juanak. Uda hastear dago. Festaren lilura gauzez eta egunez. Danborrada, dantzaldiak, ... jo ta ke lehertu arte. San Juanetan, JMA ere jai giroan izan da.

Guztiekin. Betiko moduan.

JMA 
ALEJANDRO ALTUNA, S.A.

JAIETAKO E

Egubakoitza 21

Ludoteketan eta Gazte Txokoetan KAMISETA TINDATZEA egingo dute.

22:30 Amaia Udal Antzokiko sarreran 'PUTZ JAIA': Rita Arrabalera kabareta eta Asier Serranoren eta bere taldearen kontzertua.

infantil, kadete, gazte eta senior mailetan.

16:00 Txosnagunean GRAFITI ERAKUSKETA.

22:30 Monterron parkean ROCK KONTZERTUA: Anger, Numen eta Doctor Deseo.

Domeka 23

12:00 Herriko plazan TXUPINAZOA koadrilak elkartzeko.

15:00 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

16:00 Herriko plazan

ETXAFUEGOAK

ETA BONBA

JAPONIARRAK.

17:00 Zaldibar pilotalekuan ARKU TIROKETA Txapelketa. Arku tiroketa

praktikatzeko aukera ere egongo da.

17:00 Koadrilak Maalan elkartuko dira MAKALA herriko plazaraino ekartzeko.

18:00 Herriko plazan koadrilek MAKALA JASOKO DUTE. Horren ondoren, triki-poteoa.

19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren SALBE SOLEMNEA.

21:30 Nafarroa etorbideetik herriko plazaraino ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA herriko plazan.

22:30 Nafarroa etorbideetik irten eta herriko kaleetan zehar, SUDCek antolatuta eta Eskoriatzako Musika Bandarekin, NAGUSIEN DANBORRADA. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta herriko plaza.

23:00 Txosnagunean SKA FESTA, Cyprinidians eta Ttak taldeekin.

01:00 Herriko plazan Gaubela taldearekin DANTZALDIA.

Astelehena 24

08:15 Herriko plazan TXOKOLATE-JANA.

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA.

Ferrerias kaletik irten, eta Erdiko kaletik eta Iturbideetik pasatu ostean Laubide plazan egongo den zezen-plazan amaituko da. Gero, zaleendako bigantxak izango dira zezen-plazan bertan.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

12:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.

12:00 Herriko plazan OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatzeko dituzte.

12:30 Abaroan 80 urtetik gorako NAGUSIEI OMENALDIA.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA Arrasate

Musikaleko MUSIKA BANDAK.

Egitaraua:

Peña Taurina

Vitoriana (Martín Domingo).

Rêverie (Jef Penders).

Saxofoia eta banda.

Bakarlarria: Laura Díaz de Gereñu.

Drummer's Delight (Henry Mancini).

Luisa Fernanda –zarzuela

aukeraketa– (Federico Moreno

Zapatua 22

11:00 Uarkape Udal Pilotalekuan KOADRILA ARTEKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK.

16:00 Uarkape Udal Pilotalekuan SAN JUAN PILOTA

TXAPELKETAREN FINALAK, aurrebenjamin, benjamin, alebin,



NUMEN ETA ANGER TALDEAK

Zapatuan, Monterongo parkean, Doctor Deseo taldearekin batera, Arrasateko musika talde bik joko dute: Anger eta Numen taldeek, hain justu.

Non: Monterronen.

Noiz: Zapatua / 22:30



MAKALA ALTXATU

Aurten ere koadrilek Maalatik herriko plazaraino eramango dute makala, eta han altxatu. Horrela hasiko dira aurtengo San Juan jaiak.

Non: Maalatik herriko plazaraino

Noiz: Domeka / 17:00



DANBORRADA

Domekan, Nagusien Danborrada izango da gaueko hamar eta erdietatik aurrera. Kaleetan zehar ibili eta gero, herriko plazan amaituko da.

Non: Arrasateko kaleetan

Noiz: Domeka / 22:30



ARRASATE MUSIKALEKO BANDA

Urtero moduan, Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua emango du San Juan egunean. Eduardo Arzamendik zuzenduko du Banda.

Non: Monterronen

Noiz: Astelehena / 13:00

NISSAN PRIMERA BERRIA.
ADIMEN MOTA BERRIA.



NISSAN PRIMERA berriaren eta orain arte zeuden autoen arteko edozein antzekotasun konfidentzia hutsa besterik ez da. Diseinu sendoko autoa. Kontrol panelak erdian. Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentia. Nabigatzeko DVD sistema. Atzeko ikuspegiko kamera. Auto berria baino gehiago da, autoa ulertzeko beste era bat. Inteligentzia era berria.

Aurreikuspenak_GAINDITZEN

PRIMERA BERRIA



SHIFT_expectations

ALDIBI AUTOAK, S.A.
ZIGARROLA KALEA 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE

GITARRAUA

Torroba).
Dianas de San Fermín (Juan de Orué).
Estampas bilbainas (Ricardo Amiano).
El Rey León (Elton John).
Gora Arrasate (J. Azurmendi).
San Juan (Moldaketak: Juan Arzamendi).

Zuzendaria: Eduardo Arzamendi Zeziaga.

18:30 Zaldibarren koadrirek antolatutako PILOTA PARTIDUAK.

19:00 Arrasateko GAITEARIEKIN KALEJIRA.

19:30 BERTSO-TRIKI-POTEOA.

21:00 Herriko plazan DRAGOI JANA. Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn, eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Salneurria: 10 euro. Antolatzaileak: AED, AEK eta EHE.

23:15 Herriko plazan EGAN taldearekin DANTZALDIA.

24:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak.

24:30 Monterron parkean RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA.

04:30 KULERO ETA GALTZONTZILO herri lasterketa

Martitzena 25

08:15 Herriko plazan TXOKOLATE-JANA.

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA ohiko ibilbidean.

Gero, zaleendako bigantxak izango dira zezen-plazan.

10:00 UMEAK ETA GAZTETXOAK iratzartzeko DIANA herriko kaleetan.

11:30 Seber Altube plazan koadrilak

elkartuko dira TXARANGAREKIN TXIKITEOA hasteko.

11:45-12:00 Seber Altube plazatik pasatzen diren umei eta gaztetxoei, PONPOIAK, MARAKAK ETA BANDERINAK banatuko dizkiete Eguzki Laruri ongietorria egiteko.

12:00 EGUZKI LARURI ONGIETORRIA Zaldibarren. Gero, jolasparkea (puzgarriak, kart autoak eta lantegiak) 14:30ak arte.

14:30 HAUR BAZKARIA Zaldibarren.

14:30 BAZKARIA GAZTETXEAN.

16:00 Zaldibarren Eguzki Laruren JOLASPARKEA 17:30ak arte.

17:30 Alde zaharrea OLINPI-POTEOA txarangak lagunduta.

17:45-19:15 Zaldibarren TRIKIMAILU ESPRESS ikuskizuna.

19:15 Zaldibarren EGUZKI LARURI AGURRA.

20:00 Los Pérez de Nochistlán MARIACHI taldearekin KALEJIRA.

23:00 Herriko plazan Euskadi Gaztearen DISKO FESTA.

23:00 Monterron parkean LOS PÉREZ DE NOCHISTLÁN mariachi taldearen emanaldia.

KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

12:30 KALEJIRA Arrasateko TRIKITILARIEKIN.

14:30 Seber Altuben HERRI BAZKARIA.

Txartelak salgai: Monte eta Basati tabernetan.

17:00 Herriko plazan HAUR ANTZERKIA:

Trufaldino.

17:00 INCANSABLES txarangarekin KALEJIRA.

19:30 Herriko plazan SOKA DANTZA.

19:30 Txosnagunean ROCK KONTZERTUA. Taldeak: Serial Number eta Jousilouli.

20:00 Seber Altube plaza inguruan Trapu Zaharra taldearen KALE ANTZERKIA: *El Cuarto Tenor.*

20:00 TXINPARTA taldearekin DANTZALDIA herriko plazan.



NAHI BESTE PILOTA

Sanjuanetan pilota izango da nagusi. Hainbat txapelketa izango dira jokoan, eta pilotari profesionalak izango dira Uarkapen

Non: Uarkapen
Noiz: Zapatua /18:00



DRAGOI JANA

Urtero moduan, AEDk, AEK-k eta EHEk Dragoi Jana antolatu dute astelehenerako, San Juan egunerako. Herriko talde eta lagun askok lan egingo du afaria prestatzen, afaria ematen eta Dragoi Janean egingo diren ikuskizunak antolatzen.

19:30ean, bazterrak girotzeko, bertso-triki-poteoa antolatu dute. Dragoi Jana, berriz, 21:00etan hasiko da, eta afaltzeko honako menua izango da: entsalada, dragoi txuleta piperrekin, gazta, menbrilloa eta kafea.

Afaldu bitartean, hainbat ekitaldi izango dira: bertsolariak, Txatxiar-tistak eta hainbat sorpresa. Erosi txartelak lehenbailehen, agortu aurretik, AEDn, AEKn edo Monte eta Iturriotz tabernetan.

Non: Herriko plazan
Noiz: Astelehenean / 21:00



OTORDUAK TXOSNETAN

Txosnetan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da. Ilegalen Konpartsak otorduak emango ditu.

Non: Txosnen gunean
Noiz: Astelehena, martitzena eta eguaztena / Gaez eta egunez

Lanbide Heziketa

Uztailaren
1tik 5era



Ingurugiroa

Ingurugiro Kimika (B eredua)
Ingurugiro Osasuna (B eredua)

Osasungintza

Osasungintza Dokumentazioa (B eredua)
Erizaintza Zainketa Auxiliarrak (D eredua)

Eraikuntza eta Obra Zibila

Eraikuntza Proiektuen Garapen eta Aplikazioa (B eredua)
Obren eta Planen Burutzapena (B eredua)

Gorputz eta Kirol Ekintzak

Gorputz eta Kirol Ekintzen Animazioa (D eredua)

A
Arizmendi
ikastola

Informa zaitez!

902 11 20 25

Etortzekoa zara?

Arrasatearrondako ez ezik, ibarreko beste herrietakoendako eta, oro har, jaizale guztiendako ere aproposak dira Arrasateko jaiak, sugarren jai handia. Debagoieneko hainbat herritan bizi diren arrasatearren iritziak batu gura izan ditugu. Hona hemen zer kontatu diguten. Ea zuek ere animatzen zaituzteten!



LURDES JAUREGIALZO
1991 ezkerro Eskoriatzan bizi da

Lurdes Eskoriatzan bizi da, baina Arrasaten lan egiten du eta jaioterriarekin lotura handia dauka. San Juan jaiak gustuko ditu eta ia urtero etortzen da.

“Gehien atsegin ditudan ekintzak Danborrada, Dragoi Jana eta San Juan Sua dira”. Aurten ere etorriko da, baina gura baino gutxiago, ume txiki bat dauka-eta.



JOSE RAMON BEREZIBAR
1974a ezkerro Bergaran bizi da

Aspaldian ez da sanjuanetara etorri, egun horietan lan egin behar izaten du-eta. Lehen, etortzen zen jaietara, familiarekin egon eta anaiarekin

kalera irteteko. Danborrari ohia, sanjuanetako azken eguna gogoratzen du, bereziki, Koadrilen Eguna, hain zuzen. Kanpanzarrera joaten ziren bazkaltzera.



ANUSKA ELORTZA
2000 ezkerro Aramaion bizi da

Anuska aurten ez da San Juan jaietan izango, kanpora joateko aprobetxatuko ditu-eta jaiegun horiek. Joan den urtean izan zen Arrasateko jaietan; hor-

taz, oraindik ez du ahaztu jaietan zer duen atseginen: gaueko giroa. Horixe da San Juan jaietan Arrasaten izan denean gehien aprobetxatu duena: gaua, alegia.



BEGOÑA AZKUNAGA
1994a ezkerro Eskoriatzan bizi da

Begoña ez da aurten sanjuanetara etorriko, kanpoan izango delako. Baina herriko jaiak betidanik gustatu izan zaizkiola kontatu digu. “Lehen,

gaueko giroan ibiltzea, entzierroak eta bigantxak ikustea, eta gero, jakina, ohera joatea gus-tatzen zitzaidan, baina aspaldi ez naiz gauez irte-ten, umearekin...”.



PATXI MONTERO
1996a ezkerro Elgetan bizi da

Patxi ez da aspaldi sanjuanetara Arrasatera etorri, eta aurten ere ez dauka jaietara etortzeko asmo-rik. “Ez naiz batere jai-zailea eta San Juan jaiak

ez naute ezertxo ere motibatzen. Oso gazte-tatik, San Juan jaiak oso eskasak iruditu izan zaizkit. Gurago ditut beste jai batzuk, esate-rako, Santamasak”.



IDOIA PEÑAKOBA
1996a ezkerro Aretxabaletan bizi da

Nahiz eta sanjuanetan oporrak izan, kanpora joateko ohiturarik ez dutela kontatu digu Idoiak. Hortaz, jeneralean bisita egiten die herriko

jaiei: “Dragoi Jana gus-tatzen zait, azkeneko urteetan parte hartu izan dut; eta Erremem-tari dantza, Danborrada eta kaleko giroa gustu-ko ditut baita ere”.

Audi A4 Avant berria. **Ikusteko beste modu bat dago.**



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Goienka 2a

Egubakoitza / 2002ko ekainaren 21a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren
21etik 28ra

Udako kultura jaialdia Elorrion

Musika eta antzerkia, udako freskagarri

Elorrioko Arriola Kultura Aretoko kideek Udako Jaialdia antolatu dute beste behin. Gaur hasiko dira ekintzak, eta uztail bukaerara arte izango da zer entzun edo ikusi Elorrion. Hasieran, orain dela lau urte, Elorrio Klasikoa izenburuarekin plazaratzen zen eskaintza hori. Orduan, dozena erdi ekitaldi izaten ziren; iaz, dozenara iritsi ziren; eta aurten, hamabost izango dira: hamalau kontzertu eta antzerki bat. Debagoiendarrok izango dugu, ibarretik asko aldendu barik, zerekin gozatu.

/LEIRE KORTABARRIA



LUIS DELGADO bakarlariarekin batera dator aurtengo egitarauko proposamen originaletariko eta erakargarriena-tariko bat. Erdi Aroko musikan aditua da Delgado, baita musika arabiarrean ere, eta garai hartako musika instrumentuak jotzen ditu, bai harikoak, bai eta haize edo perkusiokoak ere. Gaztelar, musulman eta sefardi estiloko Erdi Aroko musika jorratzen du. Kristau gorteetako ospakizunak, jauregi musulmanetako giroa eta familia sefardien bizitza zelakoak ziren irudikatzen lagunduko digu Luis Delgadoren musikak. Uztailaren 19an joko du, Elizpean, 22:30ean.

JAIALDIK/ ELORRIKO UDAKO JAIALDIK INOIZ BAINO INDARTSUAGO DATOZ

Kultura eskaintza zabala Elorrion

ESTILO ASKOTARIKO HAMALAU KONTZERTU ETA ANTZERKI SAIO BAT IZANGO DIRA UDAN BARRENA ELORRIKO TXOKO EDERRENETAN

Orain arte prestatutako egitarau trinko eta zabalenerekin datozkigu aurten Elorriko Udako Jaialdiak. Urte batetik bestera geroago eta agertoki, emanaldi eta eskaintza gehiago eta zabalagoa antolatzen dute Arriola Kultura Aretoko kideek eta Elorriko Udalak.

“Aurten sendotu egin gura izan dugu jaialdien egitura, eta horretarako ekitaldi gehiago agertoki gehiagotan antolatzea”, dio Arriola Kultura Aretoko presidente Inaki Larrañagak.

Ekainaren 21etik aurrera, bina abesbatza, orkestra eta laukotek, antzerki talde batek, eta beste zortzi talde edo bakarlarik bisitatuko dute Elorrio. Agertokiak herriko txoko ederrenak izango dira: Esteibar araua, Aldatzekua, Untzeta eta Tola jauregiak... Izan ere, musika gozarena baldin bada, are gehiago Elorriko paraje ederrak badira agertoki.

LEIRE KORTABARRIA

EGITARAU

Ekaina 21ean / 22:30ean	6an / 22:30ean Wafir Aldatzekuan
Antonio Serrano & Horacio Icasto Quartet Gazetan	12an / 22:30ean Christian Howes Argiñetan
22an / 22:30ean Amarau Esteibar Araua jauregian	13an / 22:30ean, Luis Delgado Elizpean
28an / 22:30ean Lourdesko koban Mas & Rallo	19an / 22:30ean, Ukrainako orkestra Elizan
29an / 22:30ean Tactequeté San Jose ermitan	20an / 22:30ean, Baionako Ganbera laukotea
Uztaila 3an / 22:30ean Howard Klug & Anouska Antunez Lourdesko elizan	Elizpean Ordu berean, Link Concert Arriolan
4an / 22:00ean EHUko abesbatza eta Camerata Berri Elizan	26an / 22:30ean San Petersburgoko umeak Tola jauregian
5ean / 22:30ean Al suroeste teatro Elizpean	27an / 22:30ean Orquesta de Cámara Markevich S. Agustin Elizan



Amarau jazz taldea

Oboe, piano, kontrabaxu eta bateria jotzaile banak osatzen dute Amarau jazz taldea. Kide bi durangarrak dira; etxeko taldea, hortaz. Laurak dira musikari ikasiak, eta gehienak, baita irakasleak ere. Elkarrekin lantzen ari diren musikak tradizioa eta sormena ditu abiapuntu, jazz moldean du espresioa, eta askatasuna eremu.

Jazza gustuko dutenek Antonio Serrano eta Christian Howes musikarier emanaldiak entzuteko aukera ere izango dute.



Markevich ganbera-orkestra

Hogei irakasle eta Ukrainako Sinfonikako bakarlarik osatzen dute Markevich ganbera-orkestra; hau da, hautatuen artean, hautatuak. Talde horrek ganbarako musika hartu du lan esparru, eta pieza ezagunak osatzen ditu egitarauak. Tartean sartzen ditu izenean omentzen duen Igor Markevich musikari ukrainarraren lanak ere.

Beste ganbera-musika emanaldi bat ere izango da: Baionako Côte Basque hari laukoteak eskainiko duena, hain zuzen ere.



Wafir

Musika etnikoa entzuteko Maukera ere ez da falta izango Elorriko jaialdiotan. Horren adierazle Mas&Rallo taldea dugu -arabiar, indiar, flamenko eta blues arteko fusioa lantzen duena-, baita soinu afrikarrak lantzen dituen Wafir bakarlaria.

Sudaner jaiotako musikari horrek akordeoia, biolina, lauda, eskusoinua, perkusioa... erabiltzen ditu musika koloretsu, ezezagun, baina ulergarria egiteko.



Musika korala eta elizakoa


Elizako musika jotzen dute Óscar Candendo organo jotzaileak, EHUko abesbatzak eta Camerata Berri soka laukoteak elkarrekin. Hiru ere ibilbide luzea egin dute musikan.

Estilo berbereko beste kontzertu batzuk ere izango dira. Adibidez, Ukrainako Orkestra Sinfonikoak edo San Petersburgoko Irrati Telebistako haur abesbatzak emanaldi bana egingo dute; biek hala biek, musika klasiko korala eskainiko dute.



Tactequeté

Taldearen izenak berak adierazten duen moduan, perkusioa da euren espresioa; perkusioa eta zaratak. Bost perkusio eta haize instrumentu bat erabiltzen dituzte taldekoek giro berezia sortzeko. La Fura dels Baus taldearekin lan egindakoak dira bost musikariok, baina berdin egin dezakete kalejira bat edo zaratak aztertzeke emanaldiak. Proposamen egokiagoa da mugimenduan entzuteko, jarrita baino gehiago. Uztailaren 3an izango da emanaldia.



Kale antzerkia

Hamalau musika proposamen eta antzerki saio bat; horra hor Udako Jaialdiotako antolatzailleek egituratu duten eskaintza. Antzerkia Al Suroeste Teatro taldearen eskutik etorriko da, programako *ardi beltza*.

Taldekoek lege zaharreko antzerkia dute gogoko, gurdi gainekoa, kalean egitekoa, ikuslearengana hurbiltzen dena. Lau ipuin lotu dituzte lan bakarrean, era ikusgarrian taularatzeko.

ERAKUSKETAK/ ARRASATEKO INDUSTRIA ERAKUSKETA INAUGURATU DUTE

Arrasateko industriaren historia

UNIÓN CERRAJERA ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA ZENAREN BIGARREN SOLAIRUAN DAGO ERAKUSKETA IKUSTEKO AUKERA

Arrasateren eta, oro har, Debagoienaren historia berrienaren zati garrantzitsu baten gainean zerbait gehiago ikusteko eta ikasteko aukera dugu gaurtik aurrera. Izan ere, zabalik dago, ekainaren 21etik, Arrasateko Udalak antolatatu duen industriaren gaineko erakusketa.

Cerrajerako sirena hotsaz jakinarazi diote antolatzaileek Arrasateri XX. mendeko bere historiaren zati bat gogoratzeko aukera duela. Horretarako, Unión Cerrajerako -gure industria bizitzako izen esanguratsuenetariko bat- egoitza nagusi izandako eraikineko bigarren solairura jo besterik ez dute debagoiendarrek.

Erakusketa beste proiektu baten oinarri eta abiapuntua da: Debagoieneko Industria eta Teknologien Interpretazio Zentro-Museoa, hain zuzen ere. Museo hori dagoeneko prestatzen dabil Arrasateko Udala.

HISTORIA BAT, LAU GUNE

Debagoiena, tradizioaren eta berrikuntzaren arteko giza abentura erakusketaren xedea da "eskualdearen industria eta bilakaera sozio-ekonomikoaren historia zein gaur egungo berrikuntzak eta aurrerapenak herritarrei hurbiltzea eta kultura ondare bezala tratatzea", dio Arrasateko Udalak.

850 metro koadrotan lau gune antolatatu ditu Udalak: lehenengoa, XIII. mendean geroztik Arrasateko altzairuaren eta burdintzaren garrantzia ikusi ahal izango da; bigarrean, industrializazioa da ardatza, Arrasateko lehen industria-elkartek dira protagonista; kooperatibismoa miatzeko aukera eskainiko du hirugarren gune tematikoak, 50eko hamarkadatik aurrera; lau garren guneak Debagoieneko Industriaren Interpretazio Zentro-Museoa aurkeztuko du.

LEIRE KORTABARRIA



Besteak beste, industrializazioaren aztarnak miatu ahal izango ditugu erakusketari esker.

Elorrio Udako Jaialdiak 2002

<p>22:30etan Gazetan</p> <p>ANTONIO SERRANO & HORACIO ICASTO QUARTET</p> <p>ekainak 21 ostirala</p> <p>● San Agustinen</p>	<p>22:30etan Esteibar Araunas</p> <p>AMARAUN</p> <p>ekainak 22 larunbata</p> <p>● Elizan</p>	<p>22:30etan Lourdesko koban</p> <p>MAS & RALLO "tamiz"</p> <p>ekainak 28 ostirala</p> <p>● Arriolan</p>	<p>22:30etan San Josen</p> <p>TACTEQUÉTÉ</p> <p>ekainak 29 larunbata</p> <p>● San Agustinen</p>	<p>22:30etan Lourdesko elizan</p> <p>HOWAR KLUG & ANOUSKA ANTÚNEZ</p> <p>uztailak 03 asteazkena</p> <p>● Elizan</p>	<p>22:00etan Elizan</p> <p>EHUKO ABESBATZA CAMERATA BERRI</p> <p>uztailak 04 osteguna</p> <p>● Arriolan</p>	<p>22:30etan Elizpean</p> <p>EL SUROESTE TEATRO "LOS CÓMICOS DEL CARRO"</p> <p>uztailak 05 ostirala</p> <p>● Arriolan</p>
<p>22:30etan Aldatzekuan</p> <p>WAFIR "Nilo Azul"</p> <p>uztailak 06 larunbata</p> <p>● Elizan</p>	<p>22:30etan Argiñetan</p> <p>CHRISTIAN HOWES</p> <p>uztailak 12 ostirala</p> <p>● Arriolan</p>	<p>22:30etan Elizpean</p> <p>LUIS DELGADO</p> <p>uztailak 13 larunbata</p> <p>● San Agustinen</p> <p>"Tres danzas, tres músicas, tres culturas"</p>	<p>22:30etan Elizan</p> <p>ORQUESTA SINFÓNICA NACIONAL DE UCRANIA</p> <p>uztailak 19 ostirala</p> <p>● Arriolan</p>	<p>22:30etan Casajaran</p> <p>CUARTETO DE CÁMARA DE LA ORQUESTA DE BAIONA</p> <p>uztailak 20 larunbata</p> <p>● Arriolan</p>	<p>22:30etan Tola Jauregian</p> <p>CORO DE LOS NIÑOS DE LA RTV DE SAN PETERSBURGO</p> <p>uztailak 26 ostirala</p> <p>● Elizan</p>	<p>22:30etan San Agustinen</p> <p>ORQUESTA DE CÁMARA MARKEVICH</p> <p>uztailak 27 larunbata</p> <p>● Arriolan</p>


b a b e s l e a k

l a g u n t z a i l e a k

● Eguraldi txarra egiten badu / En caso de mal tiempo


Ekainak 21-28

Leire Kortabarría / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77



Ondo pasau San Juanak!

Gorbea 2
ARETXABALETA
943 77 09 44



ANTZERKIA

BERGARA

► **Plater konbinatua** antzezlan eskainiko du Interruptus taldeak gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Missh... eria** antzezlan jokatu du Latirili taldeak bihar, zapatua, herriko plazan, 19:30ean.

OÑATI

► **Txotxongilo eta antzerki saioa** antolatatu du Elkar-Hezi ikastetxeak gaurko. Herriko plazan, 18:30ean.

► **El uno y el otro** antzezlan eskainiko dute Adolfo Fernández eta Rafael Martín aktoreek ekainaren 28an, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Gaztetxearen historiaren gaineko** argazki erakusketa izango da etzitik hasi eta hurrengo bi asteetan, gaztetxean bertan.

► **Beart elkarteak antolatutako margo ikastaroko ikasleen** lanen erakusketa ikusteko aukera izango duzue etzira arte, domeka, kultura etxean. Gaur, 18:00etatik 21:00etara izango da; bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

OÑATI

► **Rockaren eta Euskal Herrian izan diren rock kontzertuen gaineko** argazki erakusketa antolatatu du Elkar Hezi ikastetxeak. Euren egoitza eta herriko hainbat tabernatan ipiniko dituzte argazkiok. Ekainaren 28ra arte izango duzue ikusteko aukera.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **Andramaixetako jaietako kartela** aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Edozein aretxabaletarrek hartu ahal izango du parte. Argibideetarako, jo kultura etxera edo udaletxera. Mugaeguna ekainaren 23a izango da.

DEBAGOIENA

► **Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako berbetaren** inguruko ikerketa linguistiko orokorra egiteko beka deialdia egin dute udalak. Argibideetarako, jo aipatutako udaletara.

OÑATI

► **San Migel jaietako programaren azala aukeratzeko** lehiaketa deitu du udalak. Oñatin jaio edo bizi den edozeinek parte hartu ahal izango du.

Mugaeguna uztailaren 19a izango da, eta irabazleak 250 euro jasoko ditu.

MUSIKA

BERGARA

► **Ki-Sap (ska) eta Txakunpa (perkusioa)** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30.

► **Aitzol Mujikaren eta Indira taldearen** kontzertua izango da bihar, zapatua, Infernukua tabernan, 01:00etan.

ELORRIO

► **Udako Jaialdiaren barne**, honako emanaldiak izango dira: gaur, Antonio Serrano & Horacio Icasto Quartet, gazetan; bihar, Amaraun, Esteibar Arauna jauregian; eta datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Mas & Rallo, Lourdesko koban. Hirurak 22:30ean izango dira.

OÑATI

► **Ben Monder Quartet** taldearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza,

Santa Ana antzokian, 22:30ean.

► **Capilla Peñaflores taldearen kontzertua** izango da etzi, domeka, Arantzazuko basilikan, 19:30ean.

DEIAK

BERGARA

► **Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria programaren** saioa izango da gaur, hilaren 21ean, parkean, 17:00etatik aurrera; eta etzi, Fraiskozuri plazan, 16:00etan. Segidan, 18:00etan, *Morgan pirata* delako antzerki lana jokatu dute, 10-11 urteko umeei zuzenduta.

► **Futbolin txapelketa** antolatatu du gaztetxeak biharko, zapatua, 16:00etan.

► **Gaztetxeak Deba bailaran gaiaren inguruko hitzaldia** izango da etzi, gaztetxean, 18:00etan.

► **Euskara justizian gaiaz mahai-ingurua** izango da eguenean, hilaren 27an, UNEDen egoitza, 18:30ean.

► **Nafarroara irteera antolatatu du** San Joxepe erretiratuen elkarteak



► JAIK

SAN JUANAK, ARRASATEKO JAI NAGUSIAK

Gaurtik hasi eta ekainaren 26ra arte, San Juan jaiak ospatuko dituzte Mondragoen. Gaur, Putz jaia izango da, Amaia antzokian, 22:30ean; bihar, pilota partiduak, rock kontzertua... Ekitaldi garrantzitsuenak, ordea, domekan hasiko dira: makalaren jasoera, San Juan salvea, errementari dantza eta helduen danborrada izango dira. Astelehenean eta martitzenean, musika, dragoi jana, dantzaldiak, Ruper Ordorikaren kontzertua eta beste hainbat aukera izango dituzte.

Non: Arrasaten. **Noiz:** Ekainaren 21etik 26ra bitartean, gaurtik eguaztenera.

Arigara S.L.

Iturgintza 

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Bainu altzariak
- Hormigoizulaketa

Olarte 11 behea • ARRASATE
Tel : 670 89 35 57 • Faxa : 943 79 24 25

koma,

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Alemaniera eta italiera

Talde txikiak (Gehienez, 6)

Anima zaitetz!

Olakua 7 behea • 20560 OÑATI
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com



IKURRINAREN LEGEZTAPENA, IRUDITAN

Ikurrina legeztatu zutela 25 urte bete dira, eta Batasunak horren gaineko argazki erakusketa antolatu du, Bergarako kultura etxean. Ekainaren 25etik aurrera izango da; astegunetan, 18:00-21:00; zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ekainaren 27rako, eguena. Interesa dutenek egoitzan bertan eman beharko dute izena, hilaren 17a baino lehen.

OÑATI

► **Palestinaren eta Ekialde Hurbileko gatazka ulertzeko gako**en gaineko hitzaldia egingo du EHNEko Paul Nicholson-ek hilaren 25ean, Santa Ana antzokian, 19:00etan.
► **Laixan elkarteak batzar orokorra** egingo du ekainaren 25ean, kultura etxean, 19:00etan.

IKASTAROAK

BERGARA

► **Seitik hamalaura urte artekoendako margo ikastaroa** antolatu du Beart elkarteak uztailako zapatu goizetarako. Izena emateko, deitu 615 75 60 19 edo 653 71 53 82 telefono zenbakietara.

DONOSTIA

► **Zientzia museoak eta alfabetatze zientifikoa XXI. mendean** ikastaroa antolatu dute Euskal Herriko Unibertsitateak eta Miramongo zientziaguneak. Argibideetarako, deitu 943 21 95 11 telefonora.

OÑATI

► **EGA azterketa prestatzeko** 100 orduko ikastaroa antolatu du udal euskaltegiak, ekainaren 24tik uztailaren 19ra eta irailaren 9tik 13ra. Izena emateko, jo euskaltegira edo deitu 943 78 24 96 telefonora. Ekainaren 21a da mugaezuna.
► **Sukaldaritza begetariano ikastaroa** izango da martitzen eta eguenetan. Izena emateko, deitu gaztelekura: 943 71 60 94. Ekainaren 21a da mugaezuna.

JAIK

ANTZUOLA

► **Uzarragako jaiak** ospatuko dituzte etzi, domekan. 12:15ean, meza eta, segidan, dantzarien emanaldia eta lunch-a izango dira.
► **San Joan bezpera dela-eta**, ospakizuna izango da etzi, domeka. 20:30ean, arbola jasotzea, dantzarien emanaldia eta lore ederren lehiaketako sari banaketa izango dira.

OÑATI

► **San Juango eliza inauguratuko dute** etzi, 12:00etan. Mezaren ondoren, luntxa eta bertsolarien eta soinu jotzaileen emanaldia izango dira.
► **San Juan sua piztuko dute** etzi, Olaiturrin, 22:30ean. Gero, dantzarien eta trikitalarien emanaldia izango da.
► **Zubillagako jaiak** hasiko dira ekainaren 28an.

Zinema

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

Invicto
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

■ AMAIA ANTZOKIA

Un matrimonio bien avenida Trick
Eguena, zinekluba: 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

Star Wars II: El ataque de los clones
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, ik. eguna: 19:30.

OÑATI

■ SANTA ANA

Ali
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

EIBAR

■ UNZAGA

Spider man
Egubakoitza: 19:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

El hombre que nunca estuvo allí
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Spider man
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.
Star Wars II: El ataque de los clones
Egunero: 18:00, 22:00.
40 días y 40 noches
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El creyente

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El rey de la granja

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

X

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Infiel

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Confesiones íntimas de una mujer
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.
Monstruos S.A.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.
40 días y 40 noches
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.
Infiel
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.
Spider man
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Vivancos 3

Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

Star Wars II: El ataque de los clones
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

El rey Escorpión

Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:30.

Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

La última fortaleza

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Mientras haya hombres

Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

El cuarto ángel

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La casa de mi vida

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El rey de la granja

Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Mientras haya hombres

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El hombre que nunca estuvo allí

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cosas que diría con sólo mirarla

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Demasiado amor

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ STER ZINEMAK

Spider man

Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 15:30, 18:00, 20:30, 23:00, 01:30.
Domeka: 15:30, 18:00, 20:30, 23:00.

El rey de la granja

Egubakoitza: 18:20, 20:05.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:20, 20:05.

El cuarto ángel

Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

Star Wars II: El ataque de los clones

Egubakoitza: 18:55, 22:00, 00:50.
Zapatua: 16:00, 18:55, 22:00, 00:50.
Domeka: 16:00, 18:55, 22:00.

Infiel

Egubakoitza eta zapatua: 17:25, 20:05, 22:40, 01:10.
Domeka: 17:25, 20:05, 22:40.

El creyente

Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

No debes estar aquí

Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:15, 00:20.
Domeka: 20:10, 22:15.

Invicto

Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 00:00.
Domeka: 22:00.

Sesión 9

Egubakoitza eta zapatua: 22:00, 01:00.
Domeka: 22:00.

Érase una vez

Egubakoitza: 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 15:30, 17:30, 19:30.

Ametsen lapurra

Egubakoitza: 17:35.
Zapatua eta domeka: 15:45, 17:35.

■ YELMO CINEPLEX

Sesión 9

Egubakoitza: 15:40, 17:55, 20:10.
Zapatua eta domeka: 11:55, 15:40, 17:55, 20:10.

Rencor

Egubakoitza eta zapatua: 22:40, 00:45.
Domeka: 22:40.

Blade II

Egubakoitza: 15:25, 17:45, 20:10.
Zapatua eta domeka: 11:55, 15:25, 17:45, 20:10.

Iris

Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 00:40.
Domeka: 22:45.

Infiel

Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.
Zapatua: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.
Domeka: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:25.

El cuarto ángel

Egubakoitza: 15:55, 17:55, 19:55, 21:55, 00:00.
Zapatua: 12:10, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55, 00:00.
Domeka: 12:10, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55.

E.T., el extraterrestre

Egubakoitza: 15:35, 18:00.
Zapatua eta domeka: 11:40, 15:35, 18:00.

Vivancos 3

Egubakoitza: 15:30, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.
Zapatua: 12:00, 15:30, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.
Domeka: 12:00, 15:30, 17:30, 19:35, 21:55.

Mientras haya hombres

Egubakoitza: 15:30, 17:35, 19:45, 22:00, 00:15.
Zapatua: 11:55, 15:30, 17:35, 19:45, 22:00, 00:15.
Domeka: 11:55, 15:30, 17:35, 19:45, 22:00.

Star Wars II: El ataque de los clones

Egubakoitza: 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.
Zapatua: 11:30, 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 11:30, 15:45, 18:30, 21:30.

Invicto

Egubakoitza: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:25.
Zapatua: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Spider man

Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:05, 22:30, 00:55.
Zapatua: 11:45, 15:20, 17:40, 20:05, 22:30, 00:55.
Domeka: 11:45, 15:20, 17:40, 20:05, 22:30.

Showtime

Egubakoitza: 15:50, 17:50, 19:50, 21:50, 23:50.
Zapatua: 12:25, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50, 23:50.
Domeka: 12:25, 15:50, 17:50, 19:50, 21:50.

La habitación del pánico

Egubakoitza: 15:50, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.
Zapatua: 12:05, 15:50, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:05, 15:50, 18:10, 20:20, 22:35.

Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás

Egubakoitza: 16:00, 17:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 17:35.

El alquimista impaciente

Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:45, 00:10.
Domeka: 19:20, 21:45.

E.T.: ●●●● / Monstruos S.A.: ●●●● / Cosas que diría con sólo mirarla: ●●●● / Iris: ●●● / El hombre que nunca estuvo allí: ●●● / Star Wars II: ●●● / Blade II: ●●

KRITIKA

RENCOR

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Miguel Albaladejo.

AKTOREAK: Lolita, Jorge Perugorria, Elena Anaya, Mar Regueras.

Orain arte Miguel Albaladejo gidoi-lari eta zuzendariak (*Manolito Gafotasedo El cielo abierto*) umorea erabili izan du bere film kostunbristak egiteko. Hiri handietan bizi den jende xumeaz arduratzen da, eta graziaz betetako elkarrizketak erabiliaz eta aktoreen lan ederraz baliatuz, xarma handiko pertsonaiak eta filmak lortzen ditu. *Rencor* bere azkeneko lanak, lehenago egin-

dako filmen ezaugarri batzuei eutsi arren, baditu osagai berri batzuk.

Albadalejoren filmek sainetearekin zerikusi handia izan dute beti eta umorea funtsezko osagaia izan ohi da filmotan. *Rencor*-ekin aldaketa handi bat egin du, hirietatik Mediterraneo herri txiki batera ihes egin du, eta horrekin, agian, Mediterraneoaren eraginez, sainetea alde batera utzi du eta Italian 40ko eta 50eko hamarkadetan egiten ziren melodrametara jo du. Baina Albadalejoren azken film horrek oraindik ez du lortu antzinako melodramen indar eta progresio dramatikoa.

Hasieran, ederki egiten du kostako herri txikiaren deskribapena: dendak, txiringitoak eta biztanleen ezaugarriak. Eta aurkezten dizkigun pertsonaiak bi mota-takoak dira: alde batetik, Jorge Perugorriak eta Lolita egiten dituztenak,



izaera handiko pertsonaiak eta mundu honetan sortzen diren estualdietan ondo moldatzen direnak; beste alde batetik,

Elena Anayaren eta Mar Reguerasen pertsonaiak daude: ahulak eta inuzenteak. Filmak istorio desberdin bi erlazionatuz, pertsonaia horien harremanak kontatzen dizkigu: momentuan gertatzen ari dena eta, aurrea doan neurrian eta pertsonaiek kontatzen dutenaren arabera, hamar urte lehenago gertatuko jakinez joango gara. Horrela konturatuko gara orain gertatzen ari den istorioa lehenago gertatutakoaren errepikapena dela.

Filmaren bukaera erregistroa aldatzen du. Istorioak melodrama kutsua izan badu ere, bukaeran, tragikomediara joko du. Horrela, egoera dramatiko baten esperpentoarekin zerikusia duten osagai barregarriak eta bitxiak nahastuko ditu.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Eskoriatza. 92 m²-ko etxebizitza. Guztiz jantzita. Ganbara eta garajea. 605 77 35 16.

Gasteiz. Autobus geltoki ondoan etxebizitza salgai. Hiru logela, komun bi, sukaldia, egongela eta ganbara. 90 m². Berrituta. 616 46 54 37.

Oñatin. Etxebizitza salgai Santa Marina plazan. 943 78 09 79.

Arrasate. Santa Teresan etxebizitza salgai. 45 m². Logela bi, egongela. Jantzita. 112.000 euro. 943 77 12 75.

Antzuola. Eraikitzen ari diren etxebizitza salgai. 94 m² eta 47 m²-ko terraza. 658 73 42 14 / 943 76 71 89.

Arrasate. Altamiran etxebizitza salgai. 100 m². Duplexa egiteko aukera. Garaje leku bi. 652 70 97 79 (gauze).

Bergara. Bolun etxebizitza salgai. 65 m². 945 24 18 74 (María Jesus).

Antzuola. Eraikitzen hasita dagoen etxebizitza adosatua salgai. Garajea eta solairu bi. 943 76 63 94.

Eskoriatza. 92 m²-ko etxebizitza salgai. Guztiz jantzita. Ganbara eta garajea. 605 77 35 16.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Simon Arrieta plazan etxebizitza ematen da errentan. 943 76 17 74.

Bergara. Etxebizitza berria ematen da errentan Mastrekan. 90 m². Hiru logela. 630 60 47 75.

Haro. Etxebizitza ematen da errentan, uztaierako. Igerilekua du. 943 86 18 28.

Hondarribia. Apartamentua ematen da errentan, uztaieran eta abuztuan (hamabostaldia edo hil osoak). 943 76 17 79.

Laredo. Apartamentua ematen da errentan hondartzaren ondoan. 943 79 52 80 edo 656 71 77 45.

Mojácar (Almería). Apartamentua ematen da errentan naturista-gune baten. Guztiz jantzita. 657 73 94 25.

Somo. Etxebizitza ematen da errentan da Somon (Kan-

tabria). Hondartzatik 50 metrora. Oporretarako edo aste bukaerarako. Garajea du. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

Torreveja. Bungalow ematen da errentan. Uztaieraren lehen hamabostaldia eta abuztu osoa. 943 79 52 94.

Torreveja. Hondartza ondoan apartamentua ematen da errentan, uztaieraren 1etik 31ra bitartean. Igerilekua du. 943 78 04 70.

Benidorm. Apartamentua ematen da errentan, uztaieran eta irailetik aurrera. Levanteko hondartzako lehenengo lerroan. Igerilekua eta apartakalekua ditu. 943 74 38 27 / 943 74 20 31.

Luz-Saint-Sauveur (Frantziako Pirinioak). Etxe bat ematen dut errentan. 605 71 75 40.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan, Eskola Politeknikotik gertu. Hilean 400 euro. 653 71 61 28.

Bergara. Bolun etxebizitza ematen da errentan. 607 41 14 44.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lau ikasle etxebizitza hartuko lukete errentan irailetik aurrera. 660 04 21 84.

Leioan edo inguruan neska bi etxe bila dabilta. Deitu 20:00etatik aurrera 943 76 06 10.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logelak ematen dira errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garajea salgai Ibargarai kalean. Itxia da eta harraska dauka. 652 73 87 63.

Arrasate. Usaetxe plazan garaje itxia salgai. 943 77 18 42.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu astean barrena etxeko

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DURANGO

Berbaro euskara taldeko taberna TABERNARI EUSKALDUNA BEHAR DA. Baldintzak: Gizarte Segurantzaren alta, Ostalaritzako hitzarmena (15 paga), Diru haldintza onak. 946 20 19 18 edo 946 81 65 58

ARRASATE

NESKA ZERBITZARI BAT BEHAR DA ARRASATEKO TABERNA BATEN. 943 79 74 09

lanak egiteko eta asteburuetan jatebeteetan lan egiteko. 670 99 72 74.

Arrasate Neska gertu umeak zaintzeko, arratsalde. 677 79 32 72.

Bergara. Arratsaldeetan umeak zaintzen lan egingo nuke. 943 76 08 76.

Bergara. Emakume bi etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu asteburuetan. 650 48 17 51 edo 620 38 30 33.

Bergara. Neska gertu edo-

OÑATI

ILE APAINTZAILEA BEHAR DA OÑATIKO ILE APAINDEGI BATEN. 607 81 52 74

ARRASATE

JATETXE BATEN SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA LAN EGITEKO. 943 79 60 10

zein lan egiteko. 943 76 06 92.

Oñatin edo Debagoienean zerbitzari, sukaldari, garbitzaile... lanak egiteko gizona gertu. 637 12 45 63 (Jazinto), 637 12 45 63 (Silberio).

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume ezkondua behar da pertsona zahar bat zaintzeko. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 79 43 20.

5/ IRAKASKUNTZA

ARRASATE

ZERBITZARI ETA SUKALDARI BANA BEHAR DIRA DASTATEGI BATEN LAN EGITEKO. 943 79 11 15

501. ESKAINTZAK

Arrasate. Laguntza eskolak ematen ditut udan. 649 22 51 07.

Bergara. Ingelesko eskola partikularrak emango nituzke. 943 76 31 72.

Ingelesa. Turismoko ikasle batek ingelesko eskola partikularrak emango nituzke uztailen. 659 55 25 60.

Arrasate. Matematika arloan laguntza eskolak emango nituzke uztailen, euskaraz edo gaztelaniaz. 647 09 14 96.

502. ESKAERAK

Aretxabaleta. Kazetaritzako lehenengo mailako ikasketak egiten ari den ikasleak Ekonomiako eskolak hartzeko irakaslea behar du. 18:30etik aurrera deitu. 637 05 62 77.

Bergara. DBHko 4. mailako Matematikako eta Gaztelaniako eskola partikularrak behar ditut. 943 76 57 05.

ARRASATE

PERTSONA BAT BEHAR DA DASTATEGI BATEN LAN EGITEKO. BALDINTZA ONAK. 943 79 80 44 606 96 23 97

6/ MOTORRA

601. SALDU

Kawasaki GPX 600R motoa salgai. Ondo dago. 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

Montesa Cota 315 R. Ondo dago. 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

Kosei markako lau hagin salgai, 15 hazbeteko bastoekin. 195/50/R15 pneumatikoekin, Michelin Pilot. Berriak dira. 540,91 euroren truke. Xabier. 615 76 37 75.

Mercedes Vito furgoneta. Kanpinerako prestatuta eta aire girotarekin. 1997koa. 609 07 67 38.

Ford Fiesta. 16v autoa salgai. SS-AS. 617 65 67 02.

Gas Gas 250 EC. Motoa salgai. Oso ondo dago. 620 73 99 18.

Montesa Cota 315 R salgai. 1999koa. Ondo dago. 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2003. urteko herriz herriko gida komertzialak egiteko SALTZAILEAK behar ditu.

Baldintzak:

- Euskaraz ondo jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.
- Debagoiena ezagutzea.

Lanaren egutegia:
2002ko irailetik abendura arte

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
2002ko uztailak 1

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

Peugeot 306 automobila salgai. Gorria da. 605 71 05 23.

Rieju Castro motoa. 50 ZP. Urtebete du eta ondo dago. 619 64 78 28.

Yamaha SR-250 Especial motoa salgai. Ondo dago. 950 euro. 656 75 01 94.

Quad salgai. Kawasaki markakoa. 300 cm³. 2000koa. 5.000 euro. 943 79 12 09.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Ardi-txakurkumea salgai. 943 76 52 21.

Behia eta txahala salgai. 943 76 52 21.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Iglu kanpadenda salgai. Sei lagunendako. Ondo dago. 943 76 48 07.

Kotxe-aulkia. Ume bikiendako moduko kotxe-aulkia saltzen da. Ondo dago. 943 79 82 78.

Motorako karroa eta hiru

bizikleta salgai. 250 euro. Deitu: 13:00-14:00 eta 20:00-23:00. 943 78 24 90.

Iglu kanpadenda salgai. Familiarra. Logela bi eta pasabidea erdian. 652 79 96 30.

804. HARTU

Fax aparailua. Erabiltzen ez duzun fax aparailua gustura hartuko nuke. 669 08 42 35.

Ordenagailua. Erretiratu talde batek bigarren eskuko edo erabiltzen ez duzun ordenagailua hartuko luke gustura asko. 658 72 52 07.

805. GALDU

Bergara. Burdiñatan mendiko bizikleta lapurtu didate garajetik. Grisa da, motelgailu gorriekin. 943 76 47 29.

Bergara. Igerilekuetan umeen betaurreko graduatuak. Harry Potter markakoak. Marisa. 943 76 26 37

CLUB IYOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

IRAGARKIOFIZIALAK



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

LANGABEEK EUREN NEGOZIO IDEIEN BIDERAGARRITASUN PLANA EGITEKO KONTRATAZIO DEIALDIA INEMen laguntzarekin

BALDINTZAK:

- Langabezian egotea.
- Debagoieneko udalerriren baten erroldatuta egotea.
- Negozio ideia bat izatea.

ZER ESKAINTZEN DEN:

- Lanean sartzeko 15 kontratu: 2002ko irailaren 1etik 2003ko otsailaren 28ra arte.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUAK ETA ARGIBIDEAK:

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia 943 79 30 90

Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 79 09 00

Bergarako Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 77 91 24

Oñatikoko Udaleko Enplegu Zerbitzua 943 71 80 06

Arrasateko INEM

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

2002ko uztailaren 12a

GANESHA
NEW STYLE
JORTZELAKO
PIERCING-Δ
TATTOO & BODY PIERCING
Olarte 43 bis • ARRASATE • 943 71 18 24

- > KLINIKA LAGUNTZAILEA
- > LABORATEGI KLINIKOA
- > ESPERIENTZADUNA
- > HIGIENEA 100%

AIPAGARRI

Eusebio Osa

BERGARA

Joan den domekan, Araba Euskaraz jaian, Eusebio Osa zena omendu zuten Gasteizen, 1970eko hamarkadan euskararen alde egindako lana eskertzeko. Haren emazte Arantza Ulibarrik jaso zuen saria. Aurreko astean esan genizuen moduan, hiru aramaioar ere omendu zituzten Zigoitian.



Juanjo Arrieta

BERGARA

Juanjo Arrieta bergarra SD Eibar taldeko Zuzendaritza berriko partaide izango da. Jaime Barriuso presidente berriak zuzenduko duen taldean Batzorde Teknikoan jardungo du. 1980ko hamarkadan, Eibar taldeko entrena-tzaile izan zen Arrieta, eta taldea 2.B mailara igotzea lortu zuen.



Isabel Salud

BERGARA

Euskadiko Partidu Komunistak XI. Kongresua egin zuen joan den zapatuan; kongresuan aho batez aukeratu zuten Isabel Salud alderdiko idazkari nagusi. Horrela, Ivan Álvarezek lagatako kargua hartu du Isabel Saludek. Orain arte, EPK-ko antolaketa arduraduna izan da Isabel Salud.



JAIOTAKOAK

- Irati Blázquez Elorza.** Oñatin, maiatzaren 28an.
- Aratz Guridi Villa.** Elgetan, ekainaren 5ean.
- Libe Argoitia Lezeta.** Arrasaten, ekainaren 10ean.
- Eneko Elizaran Isasisasmendi.** Arrasaten, ekainaren 11n.
- Igor Del Palacio San José.** Arrasaten, ekainaren 11n.
- Amaia Ugarte Guridi.** Oñatin, ekainaren 14an.
- Haizea Apellaniz Otxoa de Retana.** Arrasaten, ekainaren 14an.
- Zuhaitz Astondoa Benítez.** Aramaion, ekainaren 16an.

HILDAKOAK

- Eugenio García Barberán.** Arrasaten, ekainaren 12an. 69 urte.
- Julian Amosarrain Unzueta.** Arrasaten, ekainaren 13an. 94 urte.
- Vicente Agirre San Vicente.** Oñatin, ekainaren 13an. 69 urte.
- Jesus Aizpiri Arrieta.** Bergaran, ekainaren 13an. 86 urte.
- Florencio Bachiller Álvarez.** Arrasaten, ekainaren 14an. 77 urte.
- Hipólita Oteiza Astigarraga.** Arrasaten, ekainaren 14an. 80 urte.
- Nahikari Coscojuela Gómez.** Oñatin, ekainaren 14an. 16 urte.
- Roman Irizar Agirrebalzategi.** Oñatin, ekainaren 14an. 88 urte.
- Aurelia Blanco Merino.** Arrasaten, ekainaren 15ean. 88 urte.
- Francisco Valenzuela Velasco.** Eskoriatzan, 15ean. 83 urte.
- Ramon Solana Azkarate.** Bergaran, ekainaren 16an. 74 urte.
- Rosario Cabello Sánchez.** Arrasaten, ekainaren 17an. 87 urte.
- Encarnacion Altuna Ortuoste.** Arrasaten, ekainaren 18an. 92 urte.
- Alejandro Lizarralde Alberdi.** Bergaran, ekainaren 18an. 92 urte.



Ane Zafra Pinillos mondragoetarra, **Laura** amarekin eta izeba **Rakelekin.** Ane ekainaren 11n jaio zen, eta 3,150 kilo pisatu zuen. **Ricardo** da aita, eibartarra.



Igor Del Palacio San José eta **Estibaliz** ama, mondragoetarrak. Igor ekainaren 11n jaio zen, eta 3,150 kilo pisatu zuen. **Antonio** da aita, mondragoetarra hura ere.



Aimar Agirrebarrena Balzategi, Bittor eta **Nekane** gurasoekin, bergararrak hirurak. Ekainaren 9an jaio zen Aimar, eta 3,130 kilo pisatu zuen.



Sara Roitegi Iñurtegi hon-darribiarra eta **Jose Anjel** aita, eskoriatzarra. Ekainaren 13an jaio zen Sara, eta 2,370 kilo pisatu zuen. **Esti** da ama, eskoriatzarra.



Zuhaitz Astondoa Benítez aramaioarra gurasoekin: **Placeres**, mondragoetarra, eta **Xabi**, aramaioarra. Ekainaren 16an jaio zen Zuhaitz, eta 4,10 kilo pisatu zuen.




Felipe Urrutia apotzagarrak eta **Juanita Uribe-etxebarria** aretxabaletarrak 50 urte bete dituzte ezkondata. 1952ko ekainaren 14an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Aretxabaletan. Joan den domekan, ekainaren 16an, **urrezko ezteiak** ospatu zituzten. Meza izan zuten lehenengo, eta gero, bazkaria, senitartekoekin batera. Zorionak, bada, bikote, familia osoaren partetik!

ESKER ONA

Gregorio Isasisasmendi Elorza

Aretxabaletan hil zen 2002ko ekainaren 11an, 74 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Modesto García eta **Sonia Mondragón** mondragoetarrak maiatzaren 18an ezkondu ziren Dorletako Amaren elizan, Gatzagan. Ezkonbidaian Thailandian ibili dira, eta Phuketen ere egon dira. **Zorionak**, bikote, familiararen eta lagunaren partetik!



Miriam Arregi eta **Unai Errasti** aretxabaletarrak bihar, zapatua, ezkondu dira Aretxabaletan. Zorionak, bikote, zuen lagunaren partetik!


BULEGO BERRIA OÑATIN!

Barceló Bidaiak

Kalebarria 22-A • OÑATI
Tel.: 943 71 63 43
Faxa: 943 71 64 60
Posta-e: onate@barcelo.com

Gurekin oporrak kontratatzen dituztenen artean, bi lagunendako astebeteko egonaldia* Palma de Mallorcan zozketatuko dugu.

*Behe denboraldian



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com



PABLO GARCÍA
BEKADUNA

“Gustua hartu diot telebistako lanari”

Eskoriatzako Humanitate Enpresetako ikaslea da Pablo García oñatiarra.

Edozelan ere, gaur egun, GOITBn praktikak egiten dihardu. Etorkizunean errealitate bihurtzeko daitekeen saio bat ekoizten ari da Pablo.

Nolatan ari zara GOITBn bekadun lanean?

GOITBn praktikak egiteko aukera egokitu zitzaidan; gainera, nire tutorea Joxe Arantxabal da, eta hark ondo ezagutzen du etxe hau; hortaz, haren gomendioak ere bultzatu nau erabakia hartzerako orduan.

Badakute zerikusirik zure ikasketek eta oraingo lanak?

Egia esatearren, ez du zerikusi handirik. Hala ere, oso baliagarriak izan zaizkit bertan ikasi ditudan hainbat gauza; izan ere, Humanitate eta Enpresa ikasketetan arlo askotarako prestatzen gaituzte.

Zer egiten ari zara?

Niri antzinako dokumentu, argazki eta film zaharrak batu eta programa bat osatzeko lana egiteko eskatu zidaten. Nire lehenengo eginkizuna 1985. urte aurreko film zaharrak batzean datza.

Uste duzu bideragarria izango dela prestatzen ari zaren programa hori?

Horrela izan dadin saiatzeko ari naiz, behintzat. Baina, egia esan, oso urriak dira horrelako materiala dituztenak, eta gainera, dituzten erakundeetan izugarriko dirutza eskatzen digute eskatutakoagatik.

Laguntza handia izan duzu materiala bilatzerako orduan?

Inguruko jendeak izugarri laguntzen dit, baina erakunde batzuek, lagundu beharrean, oztopoak jartzen dizkirate.

Praktikak bukatzerakoan, zer?

Nork daki! Telebistako lanari gustua hartzen ari natzaio...

Berriak

Astelehena eta egubakoitza

Jairik jai

Datorren astelehenean, Goiena Telebistako kamerak kalera aterako ditugu, *Berriak* saioa Arrasateko herriko plazatik eskainiko dizuegu eta. Egun horretan albiste direnak izango dute tarterik albistegian, baina ezin dugu ahaztu arrasatearrak jaietan daudela, eta, hortaz, jai inguruan murgilduko gara

gu ere: zuzeneko emanaldiak, San Juan jaietako protagonistak... Hitzordua albistegien ohiko orduetan (eguerdian 14:00etan eta 15:30ean, eta gauean 20:00etan eta 21:30ean).

Edozelan ere, ezin ahaztu, era berean, San Pedro jaiak ere ate joka ditugula; hori horrela, egubakoitzean, Eskoriatzan izango gara.



Asteko programazioa/Ekaina 21-27

EGUBAKOITZA 21	ZAPATUA 22	DOMEKA 23	ASTELEHENA 24	MARTITZENA 25	EGUAZTENA 26	EGUENA 27
14:00 Berriak 14:30 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak	14:00 Xeleberri berezia <i>Xeleberri</i> saioan urtean barrena ikusi ahal izan ditugun pasarte xelebreenak batu dizkizuegu. Iparrorratza Ameriketako Estatu Batuetako Yosemite parke naturalean izan zen Egoitz Zubizarreta eskalatzen. Argazki politikak ekarri dizkigu handik. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Xeleberri berezia <i>Xeleberri</i> saioan urtean barrena ikusi ahal izan ditugun pasarte xelebreenak batu dizkizuegu. Iparrorratza Ameriketako Estatu Batuetako Yosemite parke naturalean izan zen Egoitz Zubizarreta eskalatzen. Argazki politikak ekarri dizkigu handik. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Berriak 14:45 Salbe Solemnea 15:30 Berriak 16:00 Astebete 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Ibarreko kirolariak aurten egin dutenaren gainbegiratu zabal eskainiko digu Julen Iriondok. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Salbe Solemnea 15:30 Berriak 16:00 Goienasport 20:00 Berriak 20:45 Xeleberri jaietan 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeleberri jaietan 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Alkatearekin berbetan Elgetako alkate Patxi Basauri gonbidatu du Saioa Ojangu-ren kazetariak. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Alkatearekin berbetan 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan Amagoia Lasagabaster kazetariak, asteari begira, hainbat gomendio egingo dizkigu. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak

TELEBEGI/ Oihana Elorza

Udan gaude

Are gehiago, oportetan ia-ia. Oso gutxi falta da tripaz gora egoteko, iratzargailua amatatuta izateko, bi hilabetez antolatzen pasa dugun bidaia egiteko, Mediterraneoko eguzkiarekin beltzaran jartzeko eta guztiaz deskonektatzeko.

Mobilak eta telebista itzali egin behar orduan? Ezetz! Mobilak ez, behintzat. Telebista, ordea, igual bai, edo ez dela orain arte beste ikusiko, seguru. Dagoeneko nabari da-eta. Eguraldi ona eta egunak luzeagoak direnetik telebista kontsumoa jaitxi egin da. Jendea beranduago erretiratzeko da etxera eta, beraz, beranduago esertzen da telebistaren aurrean.

Baina T5eko *Gran Hermano*-k eta A3ko mundialen gaineko programek audientzia handia dute, hala ere. Espainiako partiduak barne. Batzuk animatzeko eta besteak galdu dezan erregutzeko. Laster, ordea, "anaia handia" eta "jokalari selekzionatuak" ere oportetan izango dira.

KAMERAURREAN



“Ni botilekin enamoratu egin nintzen; beti neukan aitzakia bat edateko. Niri eta nire aldamenekoei bizimodua apurtu egin zigun.”

Alkoholikoa
“ASTEBETE” (2002-06-14)



“Txirindulariendako ez da batere garai ona; arazo dezente daude, eta estatuan oso talde gutxi. Nahiko zaila da profesionalek salto egitea.”

Markel Irizar/ OIARRA-Consultec taldeko ziklista
“GOIENASPORT” (2002-06-17)

PRODUKTU ONENAK PREZIO EZIN HOBEAN!

EKAINAREN 17tik - 29ra

SUPER OFERTA 2x1

2x1



www.denok.com





2x1
GLASSEX MULTIUSO
Pistola. 750 ml.)
1,99€



2x1
VERNEL
Leungarria.
(Urdina, Jasmína,
Melokotoia)
1,49€



2x1
DENIVIT
Hortzetako
pasta. 50 ml.
2,29€



2x1
PROTECCIÓN KINESIA
Gela 250 ml.
0,99€



2x1
SCOTTEX
Ezpain-zapiak.
(Dekoratuak, Zuriak)
0,69€



2x1
FROGGY
Baxerak BALSAMO.
750 ml
0,99€



2x1
POLIKUR
Zahi-kontrako xanpua.
300 ml.
2,79€



2x1
BEL BEAUTY
Toailatxoak. 25 u.
1,99€



2x1
TULIPAN NEGRO
Gizonendako desodorantea.
Desodorante lainoztagailua.
200 ml.
2,99€



2x1
BEABABY
Toailatxoak. 80 u.
2,50€



2x1
HIDROCEAN
Anpuluak.
9,99€



ESKATU INFORMAZIOA eta disfruta ezazu OPI izatearen abantailez

Bisita gaitzazu
ARRASATEN Olarte 12an
edo Interneten
<http://www.denok.com>

2002 UDAKO ABANTAILAK



ARMAZOA EROSTEAGATIK
KRISTALAK DOAN
83 €-tik gorako erosketetan.



UMEENDAKO ARMAZOA EROSTEAGATIK
KRISTALAK DOAN
59 €-tik gorako erosketetan.



BETAURREKO GRADUATUAK EROSTEAGATIK
%20ko deskontua eguzkitako betaurreko graduatuetan eta eguzkitako betaurrekoetan.
140 €-tik gorako erosketetan.



PACK GAZTEA
95€
Opari segurua
Pack bakoitzarekin kirol-poltsa bat opari

Egunean erabili eta botatzeko lentillak, BI HILERAKO

PROMOZIO BEREZIA
Egunean erabili eta botatzeko 30 lentillako 4 kaxa erosteagatik, kirol-torloju hau emango dizugu opari

90€



EGUZKITAKO BETAURREKOAK EROSTEAGATIK
KAMISETA BAT OPARI



EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK EROSTEAGATIK
HONDARTZARAKO POLTSA BAT OPARI

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

BERGARA ARRASATE ORDIZIA

Atzeskua

MAIDER OSA

Alfredo González Chirlaque/Musikaria

Ospe handiko musikari familiakoa izanik, zu ere musikari izan behar.

Umetatik horixe ikusi dut etxean. Musika giroan hazi naiz, eta horrek musikaren bidea jarraitzera bultzatu nau.

Aitonaren ondoren, aita izan zen Musika Bandako zuzendaria, eta aitaren ondoren, zu zeu.

Bergarako Musika Bandako zuzendaria izan zen aitona, eta haren seme guztiak ere beste banda batzuetako zuzendari izan dira. Bergaran guztietatik

gazteena gelditu zen, gure aita. Ondoren, berriz, nik hartu dut batuta.

Hiru belaunaldiren historia, hortaz.

Garrantzitsua da nire arbasoek egindako bideari jarraipen egokia ematea; ilusioa egiten dit horrek.

Musika banda 1832an sortu zen, eta etenik gabe jo izan du, gainera. Nik 16 urte daramatzat Bandako zuzendari, eta orkestran, 15.

Oboea, pianoa eta gitarra jotzen dakizu. Zein instrumentu geratzen zaizu ikas-tekto?

Garrantzitsua da zuzen-

dari baten prestakuntzan gerora lan egin beharreko instrumentuak ezagutzea. Lehen, gainera, ez zegoen hainbeste musikari, eta komenigarria zen ahalik eta instrumentu gehien jotzen jakitea, jendearen hutsunak betetzeko.

Zelan gogoratzen dituzu Mikel Herzogekin gaztetan Kortx taldean bizi izandako uneak?

Gaztetako kontuak ziren haiek. Orain bezala, lehen ere elkartzen ginen gazteok musika egiteko. Musika klasikoarekin batera beste esparru batzuk ezagutu nahi nituen, eta rock-and-roll talde bat osatu nuen lagunekin batera.

Golden Apple Quartet taldearekin Bergarako Orkestrak kontzertua izan du duela gutxi. Erronka handia izan da zuretako?

Muntaia profesional baten parte hartzeko aukera izan dugu Enrike Ugarte,

Iñaki Salvador... moduko jendearekin. Horrek muga oso goian jartzera bultzatu gaitu, bai teknikoki baita psikologikoki ere. Orkestrako kideei bizigarriak ematen ahalegintzen gara, eta horregatik, askotariko muntaiak egin nahi izaten ditugu: musikalak, soinu-bandak, zartzuelak, Benito Lertxundirekin kantaldia...

Bergarako hainbat elkarteren ereserkiak ere egin dituzu.

Bai. Bergarako elkarte gehienek martxa propioa dute, eta San Martinetako Danborradan ere Bergarako martxak baino ez dira jotzen.

Dena dela, musikaz gain, baduzu beste zaletasun bat ere. Arrantzan egitea asko gustatzen ei zaizu.

Bai, nire zaletasun handienetakoa da. Bakarrik joaten naiz, eta gainerako guztiaz ahazteko modua eskaintzen dit.



“Musika giroan hazi naiz, eta horrek musikaren bidea jarraitzera bultzatu nau”

“Garrantzitsua da zuzendari baten prestakuntzan gerora lan egin beharreko instrumentuak ezagutzea”

“Arrantzan joatea nire zaletasun handienetakoa da. Gainerako guztiaz ahazteko modua eskaintzen dit”

▶ Bergarra / 46 urte / Bergarako Bandako zuzendairia

PIPERRAUTSA

Hiria

Gogoko dut Atxagak erabiltzen duen hiriaren kontzeptua. Ondo ulertu badut, hiria komunitatea da, harremanen eta loturen bidez sortzen den izaki kolektiboa, interes komunak lantzeko tresna. Horrela, Atxagaren Euskal Hiria gure arteko harreman eta gure interesei logoke lotua. Aldiz, Euskal Herria historiari eta lurraldetasunari lotua dago. Honek esentziak ditu ardatz. Hark, pertsonen borondateak. Esangura politiko sakona du ideiak, baina gera bedi hor aipamena, zutabe honek ez du eta luze jarduteko tokirik.


Hiriaren teorian, maila bat beherago jar daiteke hiri-elkarketa, adibidez, Donostia-tik Baionarainoko ‘eurohiria’. Kasu honetan, plangintza komuna da helburu nagusia.

Hurbilago, Debagoienaz ere entzun izan dugu hiri bakar bihurtzeko bidean dela. Adibidez, aurreko udal hauteskundeetan Etxenike sozialistak hemen kokatzen zuen EAEko laugarren hiria. Hori baino ageriagoan daude eskualdeko dinamika bateratzaileak, enpresa, unibertsitate, komunikazio, azpiegitura, kirol eta kultura arlokoak. Hiria ari da sortzen gurean?

Eta lehenago, nahi dugu Debagoiena hiri izan dadin? Onartuko genuke orain arteko herriak auzo bihurtzea? Hobe litzateke horrela? Bada beste aukerarik?

Debagoieneko Mankomunitateak esleitu berri dio LKSri bere Plan Estrategikoaren lanketa. Une egokia izan daiteke hausnarketa egiteko. Debagoiena, hiri?

MIKEL IRIZAR



gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1
 ONATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxe: 943 78 15 51

VELUX®

Dekorazioa, argitasunaren kontrola eta eguzki-babesa

• Leihoak • Gortinak • Pertsianak